

ASTELEHENKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2011-06-27
ASTELEHENA
327. ZENBAKIA
7. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



"Ongizatea eta parte-hartzea izango dira gure oinarriak Foru Aldundian"

Martin Garitano | Ahdun nagusia | 4

Golden Apple-ek Arrasate maitemindu zuen | 30



Hirunako saskibaloitxapelketa arrakastatsua Bergaran | 24-25



Ileorde berriak eta betiko harrera bikaina Corpus prozesioan | 15



Apar-teko jaiak Arrasatekoak!

Bero-bero eta alai-alai pasatu dira aurtengo San Juan jaiak. Agudo-agudo ere bai | 12-14

Etxeko bainuontzian baino hobeto, Biteri plazan.

JULIO CALLEJA

25 urteko musika eta pasarteak, gau hunkigarrian

600 ikusle Orkestra Sinfonikoaren kontzertuan | 29



Omenaldiak ere izan ziren. | JULIO CALLEJA

Abiadura eta bero handia Oñatiko Corpus lasterketan



| 22

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

ZINERAKO SARRERAK



ETA ZURETAKO BADIRA?

► Zoaz 31. orrialdera

SARI SORTA





Kataidetik araztegitik bidea itxita dago. | MIRIAN BITERI



Araztegi ondoan pasako den zatian azken ukituak falta dira. | MIRIAN BITERI



Ekiloretik Elorregira bitartean hodeiak sartu eta

Oñati eta Epele arteko bidegorria 2012ko udarako izan nahi dute gertu

Araztegitik Arrasateko ospitalerainoko zatia ere ordurako nahi dute zabaldu

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Epele eta Zubillaga arteko bidegorri zatia itxura hartzen ari da apurka. Oñatiko ur-zikinak Epeleko araztegitik eroateko hodiak sartu dituzte dagoeneko Oñatiko Osiñurdi industrialdetik Elorregiraino. Gauza bera egin dute Epele eta Elorregi arteko zatian ere, eta orain, biribilgunean dabil-tza lanean Edar-Epele enpresa elkartekoak, Epeleko araztegia eraikitzeaz arduratu direnak.

Kantauriko Ur Konfederazioak eta Diputazioko Landa Ingurumen Departamentuak lankidetzat hitzarmena dute. Bidegorria hoditegiaren gainean eraikitzea ahalbideratzen du horrek, eta Diputazioak lanen kostua izango badu ere, Edar-Epelekoak dira hainbat lan exekutatzeko dabiltzanak.

Hodiek babesteko plataforma

Enpresako arduradunek jakinarazi dutenez, araztegitik lanak amaitzeaz daude; urbanizazio eta obra ikuspegitik azken erremateak falta zaizkie lanei eta datozen asteotan egongo dira horiek eginda. Horretaz gainera, hoditegiari dago-kionez, hodiak sartzearekin bate-

ra, hodi horiek babesteko dituen plataforma bat eraikitzen ari dira Elorregin, Oñatirako bidean. Bidegorriaren oinarri bezala erabiliko dute esandako plataforma.

Trenbide zaharra erabili dute ur-zikinendako hoditeria sartzeko,

eta baita bidegorria egiteko ere. Elorregin izan ezik, gainerako zatietan bidea txukundu dute, eta egokitzapenak baino ez dira egin behar, hala nola asfaltatu, margotu eta argiteria eta barandak jarri. Diputazioko Lan-

da Ingurumen Departamentuko bidegorrien gaineko ardura duen Beatriz Martikorenaren esanetan, hoditegiarekin lotutako obrak amaitzean hasiko dira bidegorriarekin; irailen dute horrekin hasteko asmoa.



MIRIAN BITERI


ELORREGIKO BIRIBILGUNEAN, ERREPIDE AZPITIK DOA BIDEGORRIA Elorregiko biribilgunean errepide azpitik pasatuko da bidegorri zati berria, eta dagoeneko badabil-tza langileak ingurune horretan lanean. Edar-Epele enpresen elkartea dabil zeregin horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak lanen kostua bere gain hartuko badu ere. Lanak aurreratuta daudela ikusi daiteke goiko irudian.

Zubillaga-Elorregi-Epele tarteko lanok 9 hilabete iraungo dute, eta aurrekontua 2,3 milioi euro da; errepide azpitik egiten dabil-tzan tunela ere sartuta dago kopuru horretan. Luzerari dago-kionez, 4,04 kilometro izango ditu. Zubillaga eta Oñatiko herri gunea lotuko dituen tarteko lanak ere irailen hastekoak dira. Horren harira, Martikorenak jakinarazi du egunotan esleituko direla obra horiek. Zati horrek 3,9 kilometro izango ditu, eta 10 hilabete iraungo dute lanok.

Oñati-Arrasate arteko bidegorriaren trazatua honakoa izango da: Oñatiko bidegorri sarearekin bat eginez, Kurtzekuan hasiko da eta Auntzokua baserriaren parean saihesbidera hartuko du. Errepide azpitik segituko du bideak, San Pedroko bidegurutzeraino; handik Madalen aldera egingo du, eta Uriazpikua baserrira heldu baino lehen, ezkerrean hartu eta Fagor Industrialen atzetik joango da. Fagorko biribilgunea lur azpitik pasatuko du, eta Zubillagara hartuko du. Auzoa gurutzatu ostean, Altunako zubia zeharkatu eta trenbide zaharra hartuko du araztegitiraino. Tarte biek 3,5 metroko zabalerako bidea izango dute; horietako bi txirriindulardiendako izango dira eta gainerakoa oinezkoendako.



Zor historikoa

Apurka-apurka doaz Debagoieneko bidegorri sarea osatzen; askorendako nahi baino motelago doaz obrak. Martxoan, Antzuola eta Bergara arteko bidegorriaren bi zatien inaugurazioan, bi herri horietako orduko alkate Pedro Iturbek eta Agurne Barrusok, hurrenez hurren, Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorren orduko diputatuari sarea osatzeko Diputazioak duen motelta-suna leporatu zitoten.



Bai Euskarari

urrats biziak

ziurtagiriaren elkartea baieuskarari.org

Laguntzailea: **goiena**
KOMUNIKAZIO TALDEA



Bidea egokitu dute. | MIRIAN BITERI



Elorregira arte bi tunel igaroko dituzte erabiltzaileek. | MIRIAN BITERI



Oñatirako bidea ere oso aurreratuta dago. | MIRIAN BITERI

DEBAGOIENEN BIDEGORRI SAREA

ZATIA	EGOERA
Soraluze-Mekolalde	Eginda
Mekolalde-Bergara (Udalari dagokio)	Egiteke
Bergara-Antzuola (goiko trenbidetik)	Egiteke
Bergara-Antzuola (behetik)	Behin-behinean eginda (zati bat egiteke dago)
Bergara-Elorregi	Egiteke
Elorregi-Zubillaga	Lanean
Zubillaga-Oñati	Egiteke
Elorregi-Arrasate	Lanean
Arrasate-Aretxabaleta	Eginda
Aretxabaleta-Eskoriatza	Eginda
Eskoriatza-Arabako muga	Egiteke

ITURRIA: GOIENA

Horren harira, Barrusok nabarmendu zuen Diputazioak zor historikoa duela Debagoienarekin. Zehaztu zuen AP-1 autobidea egin zenean, errepide horren lanek eragindako kalteen ordainetan Diputazioak bidegorriak egiteko konpromisoa hartu zuela, eta bere ustez hori ez dela betetzen ari. Hala, bidegorriari lehenetsua emateko eskatu zion orduko diputatuari. Eskoriatzako alkate izandako Pedro Lasagabasterrek ere eskaera bera egin zuen martxoan, hilerri azpiko tartea inauguratu zenean.

Epele-Arrasateko ospitalea

Aurrerapausoak egin badira ere, asko dago oraindik egiteke. Horren harira, Martikorenak esan digu lanean dihardutela eta Epele eta Arrasateko ospitale arteko zatia eraikitzeko proiektua dagoeneko idatzita dagoela, eta datorren urtean hori esleitzeko asmoa dutela; aur-

ten egitea ezinezkoa da, esandako saila aurrekontu barik geratu delako.

Horretaz gainera, Elorregi eta Bergara lotuko duen bidegorriaren proiektuaren idazketa lehiaketara ateratu egunotan. Martikorenaren esanetan, orain arte aipatutako tartetako guztiak datozen hiru urteotan egiteko asmoa dago.

Bergara utzi barik, azaldu du goiko trenbidetik Bergara eta Antzuola lotzeko proiektua gelditu dagoela; eta behetik doana, Beasain-Durango autobidearen obregatik baldintzatuta dagoela. Hiru zatitan dago banatuta, eta horietako bi zabalik daude; hain justu ere, Antzuolako herri gunetik Matz Errekako industrialdera doan zatiarena eta Ariztiberritik Galartzarako zubiaren doanarena. Azken horri eragingo dio autobideak, errepide berria egiten denean, bidegorria berregingo da.

Bestalde, Bergararaino doan zatia ere orduan egiteko asmoa dago.

Arrasateri dagokionez, Diputazioaren teknikariak azaldu du San Andres eta Takolo ingurunean enpresen eta errepidearen arteko lotura ez dela ona, eta zati horretan aurreikusita dauden egokitzapenak eragina izango dutela. Martikorenaren esanetan, Diputazioak Azpiegitura Sailak eta Arrasateko Udalak konponbidea bilatuko diote zati horri.

Mugaraino lanean

Azkenik, Eskoriatzako Aingeru Guardatik Arabako mugaraino doan proiektuarekin ere lanean dabilta. Honakoa esan digu: "Proiektua biribildu dugu. Bidearen nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera eta kudeaketari buruzko plana egin dugu". Dena dela, zati hori noizko egongo den esaten du ez jakin izan.

Vitoria-Gasteiz

OSTIRALA UZTAILAREN 1a
Beharpenen lehen egunaBeharpen eta jai gaua...
eta askoz gauza gehiago

- > Gasteizko erdialdean dendak 22:00ak arte irekita.
- > Berezko deskontuaz gain, produktuak %5 eta %10 merkeagoak izango dituzue.
- > Deskontu-txartelak taberna eta jatetxeetarako.
 - > Erosketak etxera eramatea eta aparkalekua dohainik.
- > Animazioa, musika kalean eta askoz opari gehiago.

Antolatzailea



Babeslea

jarraitu
hemen

www.twitter.com/sunvg
www.tuenti.com/sunvg
www.facebook.com/sunvg

informazio gehiago: www.gasteizon.com

Martin Garitano: "Etxe honetako atea irekiko dizkiegu herritarrei"

- ▶ "Ilusioz beteta" bizi izan zuen Garitanok ahaldun nagusi izendatzeko ekitaldia
- ▶ Bi oinarri izango ditu diputazioko gobernuak: ongizatea bermatzea eta parte-hartzea

U. AGIRRE / T. MADINA | ARRASATE

Egun luzea izan zen joan den eguenean Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan. Egun luzea eta aurreikusitako emaitza izan zuena: Bildu koalizioko Martin Garitano bergararra izango da datozen lau urteotan Gipuzkoako ahaldun nagusi. Ilusioz beteta bizi izan zuen eguna Garitanok, halaxe esan dio GOIENARI: "Oso egun luzea izan da, oso nekatuta bukatu dugu, lan handia egin behar izan dugu... Baina guk planteatzen genuena lortu egin dugu eta hementxe gaude, Foru Aldundian". Hunkigarria ere izan zen, batez ere gurasoei esker ona eman zienean: "Gauza garrantzitsuak gertatzen zaizkizunean hori onartu eta aurrekoei aitortzea inportantea da", esan digu.

Diputazioko gobernuak bi oinarri sendo izango dituela nabarmendu du Garitanok: "Gipuzkoarren ongizatea bermatzea izango da lehen oinarria; Ongizate Estatuaren eredu makaltzen doa eta inportantea da hori berrindartzea. Bigarren oinarria izango da herritarren eta jendartearen parte-hartzea indartzea gure erabakietan eta politiketan. Diputazioa herritarrongandik oso urrun sentitu den instituzioa da, eta etxe honetako atea ireki nahi ditugu herritarrek parte har dezaten, eragile sozialek, ekonomikoek, langileek... erabakietan. Mahai sektorialak deituko ditugu eta erabakiak eraman-gotitu ditugu Batzar Nagusietara. Batzar Nagusiak oso ezezagunak dira Gipuzkoan, baina hau da gure parlamentua, eta guk bete egin beharko dugu han erabakitzen dena".

Hiru sail gutxiago

Ahaldun nagusiak bere kabinetearen eginkizunen artean izango du Euskara arloaren zuzendaritza, Diputazioko iturriek zapatuan jakinarazi zuten bezala. Berdintasuna, Parte-hartzea eta Migrazioa ere hartuko ditu bere baitan Garitanoren kabineteak, "gai horiek -Euskarak barnebesteko departamendu guztietan eragina izango baitute", Aldunditik adierazi dutenez.

Gipuzkoako gobernuaren organigramaren berri eman du Aldundiak eta aurreko legealdian baino hiru sail gutxiago izango ditu. Zortzi izango dira guztira: Ahaldun nagusiaren kabinetea; Foru administrazioa eta Funtzio publikoa; Ogasuna eta Finantza; Azpiegiturak eta Mugikortasuna; Gizarte politika; Landa garapena, Berrikuntza eta Turismoa; Ingu-



Martin Garitano Lohitzune Txarolarekin, ahaldun nagusiaren makila jaso berri. | TXOMIN MADINA

ESANAK

"Aldaketa sakonak izango dira alderdien arteko harremanetan"

MARTIN GARITANO | AHALD. NAGUSIA

"Gure aldetik, baliabide guztiak jarriko ditugu elkarlanerako"

AINZANE OIARBIDE | EAJ

"Espero dut Garitano eta Lopezen arteko akordioa egongo dela"

RAFAELA ROMERO | PSE-EE

"Benetako aldaketa nahi dugu; ez dugu onartuko itxurazkorik"

REBEKA UBERA | ARALAR



AINZANE OIARBIDE
EAJ

"Martin Garitanok esan du gurekin izango duela lehentasunezko tratua. Ikusi egin beharko dugu egunegun, hitz eginda, programak eta proiektuak konparatuz eta elkarlanean. Baliabide guztiak jarriko ditugu elkarlanerako. Batzuek esan dute Pasaiaiko portuarena ez dela bere kompetentzia eta eztabaida horretan ez da sartu. Nik uste koalizio horren barruan iritzi ezberdinak daudela; errauskailuarekin, adibidez. Denborak esango dugu".



RAFAELA ROMERO
PSE-EE

"Espero dut azkenean ahaldun nagusiak ETARI esango diola desagertzeko. Hori da niretzat garrantzitsua. Pentsatzen dut harreman erraza izango dugula. Euskal Herria horrelakoa da; aniztasuna eta ideologia ezberdinak daude. Guztion artean konpondu behar ditugu gure arazoak. Horregatik, espero dut Garitanoren eta Lopezen arteko akordioa egongo dela, Euskal Herriko hiritarren arazoak konpontzeko".



REBEKA UBERA
ARALAR

"Momentu historiko bat da, inoiz ez delako ezker abertzaleko ahaldun nagusirik egon. Aldaketaren aldeko bozka eman dugu, aldaketa zentzu zabalenean: justizia sozialean, garapen iraunkorrean, bakean eta normalkuntza politikoan. Gure apustua benetako aldaketarena da; ez dugu onartuko itxurazko aldaketa. Gobernuaren egoteko gonbidapena onartzen dugu, baldin eta serioa bada eta akordio bat egoten bada".

rumena eta Lurralde antolaketa; Gazteria, Kultura eta Kirola. Datozen egunetan jakinaraziko dituzte arduradunak.

Alderdiekin harremanak

Aldundiak izango dituen sailen organigramaren berri eman dute, baina gobernuaren gainean ez digu ezer aurreratu Garitanok: "Asteazken zehar aurkeztuko dugu; oraindik bakoitzak bere etxeko lanak egin beharko ditugu. Aralarri gonbidapena egin diogu gobernuaren parte har dezaten eta baietz esan digute; zehaztu behar dugu eurekin zein eta nola".

Alderdien arteko harremanak aldatuko direla uste du Garitanok: "Aldaketa sakonak izango dira epe laburrean, eta horrek mapa politikoaren berrosaketa ekarriko du". Eusko Jaurlaritzarekin izango duten harremanaz, hauxe esan digu: "Harreman instituzionalak ona behar du izan; guk gure politikak egingo ditugu eta eurek eurenak".

Askotariko belarrekin egindako eskulanak Arantzazuko azokan

Santiago Egunean, hilaren 25ean, artisauen lanen azoka egingo da

JAIONE CARPINTERO | OÑATI

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Oñatiko ARTaso taldeak aurten ere eskulangintza erakusketa-azoka antolatuko du. Uztailaren 25ean, astelehena, izango da, Santiago egunean hain zuzen, Arantzazuko basilika aurrean. Bertan, askotariko belarrekin egin daitezkeen eskulan ezberdinak erakusten saiatuko dira; apaingarriak eta ukenduak, besteak beste.

ARTaso elkarteak Arantzazuko erloju-dorrearen aurrealdeko plazaxora joatera gonbidatzen du jendea uztailaren 25ean.

ARTaso elkartearen helburua artea sustatzea da. Arantzazun eta Oñatin arte adierazpide ezberdinak sustatzeko asmoz sortu zen, 2007an; besteak beste, artisautea, pintura, literatura eta eskulanak. Artelanak jendeari hurbiltzeko, tailerrak, eskulangintza azoka, erakusketa eta bestelako ekintzak antolatzea da elkarte horren xede nagusia.

ARTaso elkarteak

Aurkezpen ekitaldia 2008ko uztailaren 27an izan zen Gandiaga Topagunean. Urte hartan, eskulangintza, birziklatze tailerra eta eskulanen erakusketa egin zituzten.

Bigarrenez 2009ko Santiago egunean egin zuten azoka. Urte hartan, artzaintzarekin lotu zuten, horren inguruko hainbat lanen erakustaldiak prestatuta. Artilearen inguruko prozesu guztiak erakutsi ziren, artilearekin eginko eskulanak, larrugintza, abarkak eta erakusketa etnografikoak, besteak beste.

2010ean, berriz, naturarekin zerikusia zuten gaiekin girotu zuten azoka. Gaiarekin lotutako liburuak erakustez gain, ezti eta gaztagintzako tailerrak, taila, saskigintza, xaboi, eta kaikugileak egon ziren; trikitilariak alaitu zuten giroa.

Uztailaren 25ean, ostirala, goizeko lehen orduan hasi eta hilaren 3an, domekan, bazkaldu ostean amaituko da. Ikastaroaren matrikula 60 euro da eta ostatuagatik, gastu guztiak barne, 85 euro ordaindu beharko dira. Izen-ematea 943 25 10 05 telefonora deituta, info@baketik.org helbidera idatzita edota www.baketik.org webgunearen bidez egin daiteke.

denerako eta lasaitasunerako hiru egunez gozatzea ahalbidetzen du.

Hiru eguneko ikastaroa

Uztailaren 1ean, ostirala, goizeko lehen orduan hasi eta hilaren 3an, domekan, bazkaldu ostean amaituko da.

Ikastaroaren matrikula 60 euro da eta ostatuagatik, gastu guztiak barne, 85 euro ordaindu beharko dira. Izen-ematea 943 25 10 05 telefonora deituta, info@baketik.org helbidera idatzita edota www.baketik.org webgunearen bidez egin daiteke.

Su hartu zuen Zerrajerako garajetan zegoen automobil batek zapatuan

Arrasateko Txaeta kaleko (Zerrajerako etxeetako) lur-azpiko garaie baten zegoen auto batek su hartu zuen zapatuan. Suhiltzaileen hiru kamioi bertaratu ziren; horrez gain, ertzainak eta udaltzainak. Sua 18:00ak baino zertxobait lehenago hasi zen, Ertzaintzak esan zuenez. Ke asko eragin zuen eta ikusmina ere bai.



Eva Salaberria, proiektuko kudeatzailea eta koordinatzailea. | DONOSTIA 2016

Eva Salaberria |

Donostia 2016 proiektuaren kudeatzailea eta koordinatzailea

"Euskal Herria transformatzeko proiektua egin dugu"

Proiektuan parte hartzea oparia izan dela eta denengandik asko ikasi duela dio Salaberriak

ASIER ALKORTA | DONOSTIA

Bihar erabakiko da Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua izango den edo ez. Eta erabakia zein den jakin aurretik, proiektuan hasiera-hasieratik murgilduta dagoen Eva Salaberria (Donostia, 1964) proiektuaren kudeatzaileak eta koordinatzaileak tartetxo bat egin du egindako lana defendatu eta harro dagoela esateko.

Zergatik uste duzu Donostia 2016ko Europako Kultur Hirurru izan behar dela?

Izugarrizko aukera ona litzateke orain arte martxan eduki dugun prozesuan sakontzeko eta esparru gehiagotara hedatzeko. Donostia inguruaz gain, Gipuzkoa eta Euskal Herri mailan ere lan egingo genuke. Baita Europarekin ere.

Finalean dauden gainerako hiruburuekin alderatuz, zein berezitasun edo bereizgarri du aldeko Donostiak?

Guk prozesuari ematen diogu garrantzia. Ez dugu 2016rako programazio bat prestatu. Gauza ezberdinak egin nahi dutenekin konexio eta harreman berriak sortzen hasten da. 2016an inflexio puntu bat lortuko du proiektuak. Gure proiektuak aldeko dituen puntuak prozesuaren bidea, kulturari buruz dugun kontzeptua (teknologia, kirola, natura, mugikortasuna, antzerkiak,...) eta gure interesekoak diren gaiak (dibertsitate linguistikoa, giza eskubideak eta elkarbizitza,...) unibertsalak izatea dira. Orokorrean esanda, hezkuntza, lan egiteko modua eta Euskal Herria bera transformatzeko proiektua da.

Beraz, jarraikortasuna da proiektuak duen berezitasuna?

Hori da. Eta proiektuaren puntu horrek eman digu aukera gauden lekuan egoteko. **Herritarrek nola parte hartu ahal dute hautagaitza honetan?**

Hasiera-hasieratik, proiektu kolektibo bat bezala planteatu da hautagaitza eta horren barruan daude herritarrek ere. Hasiera baten galdeketa egin genituen, proiektuak jorratu beharreko puntuak argitze aldera. Eta aurretik aipatu ditudan gaiak galdeketa horretatik ater dira. Baina herritarren parte-hartzea ez da hor amaitzen. Irabazten badugu parte-hartzeak aurrera jarraituko du, gauza berriak sortu eta daudenei forma gehiago emateko.

Zehatz esateko, irabaziz gero, aldaketa non nabarituko da?

Proiektuak biltzen dituen lan sistema berria eta bestelako puntuak martxan jarriko lirateke eta herritar gehiago inplikatzeko aukera edukiko dugu. Halaber, momentu honetan Donostian zentratuta dagoen proiektua Gipuzkoa osora, Bizkaia, Arabara eta Iparraldera ere zabaltzeko da. Funtsen, proiektua indartu eta zabaltzeko egingo da.

Loreto Rubio zure lankideak hautagaitza hau aurkeztea Joko Olinpikoetarako hautagaitza aurkeztea baino zailagoa dela esan du. Ados zaude?

Erabat. Joko Olinpikoak guztiak dakigu zer diren baina Kultur Hiruburu izatea ez. Hori definitu egin behar da. Gauza horiek programazio konkretu batean jaso eta azaltzea zailagoa da.

Zuretzat zer suposatzen du proiektuan parte hartzea?

Opari bat izan da. Gogorra izan da baina ona. Jende eta erakunde ezberdinak ezagutu eta haiengandik asko ikasi dut.

"Hautagaitza hau Joko Olinpikoetara aurkeztea baino zailagoa da"



Artisau bat lanean iazko azokan. | GOIENA

Bizizikasi pedagogia praktikan jartzea ahalbidetzen duen ikastaroa

J.C. | OÑATI

Uztaileko lehenengo asteburuan, Baketik-ek Bizizikasi pedagogia praktikan jartzea ahalbidetzen duen ikastaroa eskainiko du Arantzazun. *Nork bere buruarengandik ikastea* izenburua du ikastaroak, eta, Baketik-ek eskaintzen dituen guztien artean, ondoen baloratutako artean dago. Helburu finko eta zehatz bat du honakoak: parte-hartzaileei euren esperientziatik ikastea ahalbidetzeko dieten tresnak eskaintzea.

Uztailaren 25ean, ostirala, goizeko lehen orduan hasi eta hilaren 3an, domekan, bazkaldu ostean amaituko da.

Bizizikasi bizitza hobetzeko pedagogia da, bi kontzeptu integratzen emaitza: bizipena eta ikaskuntza. Geure bizipenaren kontzientziatik ikasiz geure burua hobe dezakegula esan nahi du. Ikastaro horrek, Bizizikasi pedagogian sakontzeko aukera eskaintzeaz gain, atse-

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA
XI. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2011

Iaz 20 milioiko sarrerak izan zituen Ikerlanek; gehienak, enpresendako I+G proiektuen bidez

Beste 7,5 milioi ikerketa orokorren eta proiektu estrategikoen bidez irabazi zituen

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mondragon Korporazioko Ikerlan-**IK4** zentro teknologikoak iazko ekitaldia 20,2 milioi euroko diru sarrerekin itxi du. Horietatik zati handi bat, 12,7 milioi euro, enprekin egindako kontratupeko I+G proiektuei dagokie. Kopuru horiek eta Gestio planean jarritako helburuak bete dituela kontuan hartuta, Gipuzkoako Zentro Teknologikoak 2010eko emaitzak positiboak izan direla esan dezake, batez ere krisi ekonomiko testuinguruan.

Ikerlan-**IK4**k urteroko Batzar Orokorra egin zuen Garaia Berrikuntza Gunean. Bertan, joan zen ekitaldiko datu ekonomiko nabarmenenak aurkeztu eta enpresarekin harreman estua lortzeko apustua sendotu zuen.

Partner "bikaina"

Partner teknologiko gisa "bikaintasunaren bidean" jarraitu nahi du, eta merkatu globaletan "leku estrategikorantz lagundu", Ikerlanen hitzetan. Borondate horren isla, joan zen urtean izen handiko enprekin –Fagor, Orona, CAF taldea, Alstom, Ampo Valves, Ormazabal, Acciona, Gipuzkoako Policlinica, Obe Hettich, Gipuzkoa Berritzen, Copreci eta Naturgas Energia– jarduerak egin zituen. Enprekin lankidetzat sendotu ondoren, Berrikuntza Plan Estrategikoen diseinua eta inplementazioa martxan dirauten bitartean



Batzar nagusia Garaia gunean egin du aurten Ikerlanek. | IKERLAN-**IK4**

lankidetzat hitzarmenak lortzea du helburu Ikerlan-**IK4**k.

Etorkizunerako definitutako erronka nagusien artean energia biltegitratzea, potentzia elektronikoa eta osasunean teknologia aurrerapenak martxan jartzea dira. Horiek guztiak sektore estrategikotzat ditu Ikerlanek.

Erakundearen babes

Datu ekonomikoei dagokionez, Arrasateko ikerketa teknologiko zentroak 2010. urtean 20,2 milioi euroko diru sarrerak izan

zituen. Horietatik 12,7, enprekin egindako kontratupeko I+G proiektuei dagozkie, eta 7,5, berriz, ikerketa orokor eta proiektu estrategikoei. Azken horiek Eusko Jaurlaritzaren, Estatuko Administrazio Orokorren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Europako Batasunaren laguntza izan dute. Arlo horretan, Zentro Teknologikoak Mondragon Korporazioaren "babesa" nabarmendu nahi du, ezagutza sortzeko proiektuei emandako babesagatik.

Kontratuetatik, %63

Diru sarreren zati handi bat, %63, enprekin egindako kontratuetatik etorri zen iaz; horrek Ikerlan-**IK4**k berrikuntza teknologikoko proiektuak garatzeko diharduten enprekin duen "lotura sendoa adierazten du", zentroaren esanetan. Bide horretatik, "aurre-aurrean dauden" eta enpresen I+G inbertsioak sustatzen dituzten proiektuetan parte hartzen du Ikerlanek. Horren adibide gisa aipatzen ditu Ikerlanek CENIT programa, Estatuko Admi-

nistrazio Orokorra sustatua, eta Etorgai programa, Eusko Jaurlaritzak sustatua.

Nazioartean kolaborazioak

Enpresa jarduera berrien sustapenaren arloan, Pressensor SL enpresa sortu da. Politiofenoetan oinarritutako presio-sentsoreak ustiatzen ditu, eta Ikerlan-**IK4**k ezagutza ipintzen du proiektu horretan.

Nazioartean, Ikerlan-**IK4**k Europako Batasuneko 7. Esparru Programara 22 ikerketa proiektu aurkeztu zituen iaz. Horren emaitza urtean zehar jakingo da. Hala ere, 2010ean lau milioi ko itzulkin metatuak izaten jarraitu du.

Azkenik, Arrasateko zentroko 12 ikertzailek nazioartean izena duten unibertsitate eta zentroekin iraupen luzeko trukeetan parte hartu zuten.

Ikerketa orokor, estrategiko eta ezagutzaren babesaren ataletan, joan zen urtean mikrosistemekin lotutako bi patente berri erregistratu zituen Ikerlanek, eta arlo berean beste bi patente prestatzen dabil.

Enpresarekin harreman estua

Hori guztia, "tradizioz egin den enpresarekin harreman estua ahaztu gabe", gaineratzen du Ikerlanek. Hartu-eman hori "bezeroekiko harreman iraunkorren oinarritzen da, ohiko proiektuen kontratazioaz haratago".

Emakumeek diskriminatuta jarraitzen dute enpresetan

Gizonezkoak baino gutxiago daude zuzendaritzan, eta kontratazio prekarioagoak izaten dituzte

L.K. | ARRASATE

Gipuzkoako enpresetan, emakumeak oraindik kaltetuak dira, orokorrean. Horrela azpimarratzen du Foru Aldundiak sustaturiko eta Adegiren laguntzarekin eginiko berdintasunaren inguruko diagnosi batek.

Emakume gutxiago ailegatzen dira zuzendaritzara postuetara gizonezkoak baino, eta emakumeek kontratazio prekarioagoak izaten dituzte gizonezkoek baino, ikerketaren arabera.

Sexuaren araberako lanak

Diagnostikoak azpimarratzen du lanpostu batzuetarako gizonezkoak bilatzen jarraitzen dela (zuzendaritza, komertziala...) eta emakumezkoak beste batzuetarako (administrazioa): hautaketa-ekarrizketetan familia egoeraren-

gatik galdetzen da eta desberdin baloratzen da gizona izan edo emakumea izan.

Lan-baldintza txarragoak

Emakumezkoek kontratazio prekarioagoak dituzte. Enpresetako lanaldi osoko ehun kontratu mugagabetik, %28,6 emakumeek okupatzen dituzte, eta %86,69 gizonezkoek.

Lanaldi erdiko kontratazioa handiagoa izaten da emakumezkoen artean. Horrekin lotuta, lan-baldintza txarragoak datoz: soldata, estabilitatea, postuz igotzeko aukerak... txikiagoak dira.

Desberdintasun handienetako bat zuzendaritza postuetan emakumerik ez egotea da, bai eta egoera hau aldatzeko dauden zailtasunak ere, *beirazko sabaia* izenekoa.

Erkop-eko Goienetxea, Konfekoop-eko presidente

L.K. | ARRASATE

Javier Goienetxea Urkaregi da Konfekoop, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentea ekainaren 10a ezker. Egun horretan, batzar nagusia egin zuen Konfekoop-ek, eta hantxe izendatu zuten kargu horretarako.

Mondragon Korporazioan hainbat esparrutan parte hartu izan du Goienetxea: Danobaten, Eikan, Eroskin eta gaur egun, Erkopen. Kooperatibismoan 25 urte darama lanean.

Lan Elkartuko arlotik

Kooperatibetako hainbat organo kide izan da: Zuzendaritza kontseiluak, Gizarte-kudeaketako batzordea, Gizarte-kontseilua, Artezkaritza-kontseiluak, Administrazio-kontseiluak eta Mondragon Korporazioaren Batzorde Iraunkorra.

Horrez gain, Lagun Aro eta Euskadiko Kutzaren Koopera-

tiba-biltzar eta Batzarretan ohiko konpromisarioa izan da.

Lan Elkartuko Kooperatiba batetik dator, baina urte horietan guztietan Kontsumoko Kooperatibekin, Kreditu Kooperatibekin eta Nekazaritza-elikagaien Kooperatibekin harreman estua izan du.



Javier Goienetxea. | KONFEKOOP

Gaztempresak 267 enpresa sortzen lagundu zuen iaz

Euskadiko Kutzaren Gaztempresa fundazioak 2010ean 267 enpresa sortzeko laguntza eman zuen, 1.200 eskaera jaso baldin bazituzten ere. Hala jakinarazi du *Berrria* egunkariak. Enpresa horien bidez 426 lanpostu sortzen lagundu dute. Iaz 2009an baino lanpostu gutxiago sortu ziren, baina diru kopuruari eutsi diote.

Lanbideak 35,3 milioi ipiniko ditu enplegua sustatzeko

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak 35,3 milioi ipiniko ditu enplegua sustatzeko politike-tarako. Horren bidez, enplegu autonomoa, laneratzeko enpresak sortzea eta langabezia edo giza-bazterketa arriskuan daudenak lan merkatuan sartzea lagunduko du. 13,7 milioi erabiliko ditu enplegu autonomoa sustatzeko.

Jose Antonio Azpiazu | Historialaria

"Izurritearen ondoren apokalipsia zetorrela uste izan zuten askok"

- ▶ 'Gaixotasun beltz hori' delako liburua kaleratu eta aurkeztu du Jose Antonio Azpiazuk
- ▶ XVI. mende bukaeran Oñati astindu zuen izurriteak 1.300 lagunaren heriotza eragin zuen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Jose Antonio Azpiazuk (Legazpi, 1944) XVI. mende bukaeran Oñati astindu zuen izurritea aintzat hartuta liburua idatzi eta kaleratu du. Aurreko astean, hilaren 22an, egin zuen aurkezpena Oñatiko kultura etxean. *Peste bubónica* bezala ezagutu izan zuten, baina oñatiarrek *gaixotasun beltza* deitu zioten. Pasadizo haren gainean egin dugu berba Azpiazurekin.

XVI. mende bukaera latza izan zuten oñatiarrek.

Bai. XVI. mendea oparoa izan zen oso. Herrian dauden eraikin esanguratsuenetako asko orduan egin zituzten: unibertsitatea, Bidaurreta, parrokiako zati handiena... Oñatik maila ona zuen, eta bizilagunak pozik bizi ziren, izurritea heldu zen arte.

Nondik heldu zen?

Itsasotik. Orduan, ogia egiteko garia itsasontzietan ekartzen zuten. Gariarekin arratoiak zeuden, eta arratoiaren arkakusoak. Haiak arropatan ezkutatuta etortzen ziren. Izurritea sartu zenean, arropak erre egin zituzten, eta leku batzuetan, oheak ere bai. Orduko emakume aberats askoren dotea lihozko arropak ziren. Kaxatan gordeta izaten zituzten eta uste zuten arkakusorik ez zutela.

Dena den, itsasoa urruti samar daukagu.

Lehen, orain baino hartu-eman sendoagoa genuen kostaldearekin. Itsasotik ekartzen zuten produktua barnealdeko herrietara, eta alderantziz, hemengo produktuak saltzeko itsasoaren beharra zegoen. Hemengo produkzioa Hego Amerikara begira egiten zen.

Lagun asko hil ziren?

Urterik gogorrenak izan ziren 1597a eta 1598a. Lehen udan 200 bat lagun hil ziren eta bigarrenean 1.200 bat. Kopuru handia da, kontuan hartuta orduan 5.000 lagun bizi zirela Oñatin. Baina dokumentu guztiek diote hildako kopurua 1.200-1.400 artean egon zela. Dena den, galera handia izan zuen herriak: ekonomikoki eta, batez ere, moralki.

Gizartea ikaratu egin zen?

Ikaratu eta beldurtu. 1597ko udan 200 lagun hil ziren, baina pentsatu zuten neguko hotzekin izurritea bukatu egingo zela. Baina hurrengo urteko uda askoz gogorragoa izan zen. Hori horrela, beldurtu egin ziren. Bekatuak ekarritako zigor jainkotiarra zela



Jose Antonio Azpiazu liburuarekin, Oñatiko unibertsitateko klaustroan. | MIREIA BIKUÑA

uste izan zuten, eta, aurrera joan ahala, munduaren bukaera, apokalipsia etorriko zela uste izan zuten. Oñatik ez du halako pasadizo lagarririk izan bere historia osoan. Euren kezka zen herria desagertu egingo zela.

'Gaixotasun beltza' deitzen zioten izurriteari.

Orduko bizilagunek oso barnerrata zuten bizitzaren ondoren heriotza zegoela. Baina ez zuten ondo ulertzen halako hilketa jendetsua.

Oñati gogor astindu zuen izurriteak. Eta inguruko herrietan?

Donostian kalte handia egin zuen, baita Lekeition eta Kantabria aldean ere. Seguruenik, handik etorri zen hona.

Barnealdean heriotza asko eragin zituen; adibidez, Seguran. Hango bizilagunek hartu-eman sendoa zuten Gasteizekin. Dena

den, kasu bitxiak bazeuden: adibidez, Azkoitian gogor astindu zuen, baina Azpeitian ez. Oñatin ere lagun asko hil ziren, baina Arrasaten eta Bergaran ez.

Zergatik?

Izurritearen ondorioak ikusita babes neurriak hartu zituzten. Elkartasunik eza izan zen nagusi. Inguruko herrietako bizilagunek euren osasunaren alde egin zuten.

Hildakoez gain, ze beste ondorio izan zituen izurriteak?

Izurritearengatik hil ez zirenak gosez hil ziren. Baserrietan egiten zen garia galdu egin zen. Ez zuten inora eroaten. Ez zuten ogirik egiteko aukerarik, eta orduko hartan ogia behar-beharrezko jakia zen.

Bestalde, etxeren baten pertsonaren bat gaixotzen bazen, ateak ixten zituzten. Oñatin kale

batzuetan batzen zituzten gaixoak. Mendiko kalea hormatu egin zuten eta han sartu zituzten gaixo guztiak, sendatu edo hil arte.

Izurriteak gizarteko sektore guztietan eragin zuen berdin?

Gehienbat, pobreak eta emakumeak, baina baita besoetako umeak eta neska-mutikoak ere. Orduko aberatsenek azkar egin zuten ihes izurritearen lehen ondorioak agertzen hasi zirenean.

Kutsakorra zen?

Oso kutsakorra. Arnasarekin, txistuarekin, eztularekin... Orduan bazegoen ospe handiko mediku bat Oñatin: Argantzo izenekoa. Hark bazituen erremedioak etxea garbitzeko eta osasuntsu mantentzeko, baina ez zuen sendagairik izurriteari aurre egin ahal izateko.

Zeintzuk ziren sintomak?

Lepoan, besapean eta izterondoetan buboi handiak irteten zitzaizkien. Handik dator *peste bubónica* izena. Buboi haiek supuratu egiten zuten. Oso minkorrak ziren eta sukarra eragiten zuten. Gaixotasuna harrapatzen zutenek hiru egun irauten zuten, asko jota. Laugarren egunetik aurre-

rakoak bizirik irteten ziren. Hamar lagunetik batek edo bik bizirik irauten zuten.

Familiak erremediorik hartzen zuten?

Ahal zuten guztia egiten zuten. Mina oso handia zen eta asko zoratu egin ziren. Familia asko desagertu egin ziren: kide guztiak hil ziren eta abizen asko galdu.

Batzuek, baina, neurriak hartu zituzten. Soraluzeko familia bateko kide guztiak gaixotu egin ziren, eta familia ez galtzeko erabaki zuten etxe kanpoan kaiola bat egitea. Han sartu zituzten seme gazteena eta haren zaintzaila. Gainerako kideak etxean sartu ziren. Etxe barrukoak hil egin ziren eta seme gazteena ez. Familia kontzeptua oso inportantea zen lehen, orain baino gehiago, eta etorkizuna bermatzea ezinbestekoa zen.

Izurriteaz gain, beste hainbat faktore ere eragin zuten orduko Oñatin.

Goseteak, armadaren eraginak, 1593ko San Mateo eguneko uholdeak... XVI. mendeko azken 10-12 urteak ikaragarri txarrak izan ziren.

"Izurritea itsasotik etorri zen Oñatira: arkakusoez ekarri zuten"

"Gehienbat, pobreak eta emakumeak hil ziren, baina umeak ere bai"

ZABALIK

MANU ARREGI

'http://goiena.net/iritzia/'



Yes we can?

Bi urte eta erdi dira Barack Obama Estatu Batuetako lehendakartzara heldu zela. Promes ugari, baina bidean geratu dira Guantanamoen itxiera, Irakeko tropen etxeratzea, estatubatuarren segurtate soziala eta beste zenbait gauza. Zertaz ari zen orduan Obama "Yes we can" zioenean? Ba gai zirela beste herrialde batean sartzeko eta nazioarteko arau guztien gainetik salto eginez Osama Bin Laden akabatzeke. Hau da, betikoa.

Gure "Yes we can" partikularrean murgilduta gaude azkenaldi honetan. Gai izango gara normalizazio politikoa lortzeko? Ez naiz ni oso optimista, egia esanda. Alde batetik, ezin delako ahaztu ETaren tutelapean jarraitzen dugula, ez baitu oraindik azkeneko hitza esan. Eta, bestalde, paper politiko handiegia hartu dutelako biktimek. Lagundu egin behar zaie biktimei eta dolumina adierazi, baina alde batera geratu behar dute gatazkak konpontzeko orduan. Ez da gatazka bat gainditzen beste aldekoak umiliatzea bada helburu, belauniko jarrita barkamena eskaraziz. Desberdintasun guztiak alde batera utziz, halako zerbait egin zen Alemaniarekin Lehen Mundu Gerran eta handik gutxira etorri zen Bigarrena.

Bada, hala ere, esperantzarako tokia. Paradoxikoa badirudi ere, ona da datorren urtean PP Espainiako agintera heltzea. Berregituratze industrial bat ezkerrekin egitea "errazagoa" den bezala, gure gatazka bideratzeko eskuma aginduan egotea komeni. Nahiko du Rajoyk domina hori bere paparrean jarri, baina ez zuen inoiz utziko bera oposizioan egonda.

Ondo etorriko dira hurrengo hauteskundeetarako falta diren hilabete hauek oraingoa balekoa dela erakusteko. Eta hobe eskoltak udaletxeetan sartzaren estiloko polemikak baztertzeko badira. Arrazoa izan edo ez, ez diote prozesuari onik egiten. Ez da Obama aitortutakoa betetzeko gai izan. Lortuko al dugu guk gure "Yes we can" partikularra aurrera ateratzea?

"Ondo etorriko dira hauteskundeetarako falta diren hilabete hauek"

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | lzeberio@goiena.com

Finalisten finala, azkenean

Eman du zer esan eta zer pentsatu domekako finalaren inguruan sortu zen zurrunbiloak. Zalantza barik, neurketa berezia izango da; kirola ez den bestelako osagaiak ditu, eta horrek egiten du berezi. Ez naiz pilota jarraitzaile sutsua, baina iruditzen zait aurten nire moduko askok jarraituko dutela final hori. "Pilotan ere sosa da nagusi", zioten, kritiko, Irungo prentsurrekoan Xalaren ondoan agertu zirenek. Ba, esango nuke, azkenean, aurtengo finalak sos asko emango duela. Enpresak iparra galduta ibili dira, eta, kosta zaien arren, azkenean erabaki zuzena hartu dutelakoan nago. Finala finalistena izango da eta eman dezatela euren onena.

KALE INKESTA

Interneten zein hizkuntza erabiltzen duzu nagusiki?



ADRIAN JOSE GUERRERO
ARRASATE

"Gaztelaniaz irakurtzen hobeto moldatzen naiz, ondorioz, euskara ez dut askorik erabiltzen sarean; gaztelania izaten da nire hizkuntza nagusia".



IRATI LOPEZ
ARRASATE

"Tuentian-eta euskara eta gaztelania erabiltzen ditut hitz egin behar dudana pertsonaren arabera. Ikastolako korreoa euskaraz".



MAIALEN AGIRRE
ARRASATE

"Euskara eta gaztelania erabiltzen ditut, baina sare sozialetan lagunekin txateatzeko orduan euskaraz ibiltzen naiz gehienetan".



OSKAR ELIZBURU
ARRASATE

"Lana euskaraz egiten dut eta sarean ere hizkuntza hori erabiltzen dut, esaterako, korreoa begiratzeko eta egunkariak irakurtzeko".

HANDIK ETA HEMENDIK

Uholde unibertsala ez zen unibertsala izan

Luis Aranberri Mendizabal
<http://eibar.org/blogak/amatino/>

Uholdeak eta krisialdiak ez dira berriak. Betidanik izan dira eta, sekula ez, unibertsalak.

Gogoan izan, 1980an Bilboko Ingeniaritza Eskolatik atera zen promozio osoak -bi ikasle ezik- lanuztera jo behar izan zuela, batere lanposturik aurkitu ezinik. Lanean hasi ahal izan zuten bi ingeniari haietatik, bat -promozioiko bigarrena- udaltzain sartu zen Barakaldon eta bestea -lehen- Eskolak berak hartu zuen bere baitan erakundea lotsagarri gerta ez zedin.

Sistemak porrot egin duela diotenei Noerena gertatzen zaie, euren mundutxoan ezagutzen dutenaz ari direla, ez munduaz. Dilubio unibertsaltzat jotzen dutela, euren inguruko zaparrada besterik ez dena.

Sekulako zaparrada segurutik, baina zaparrada baino ez.

Egungo zientziaren arabera ez da inondik ere egia mundu osoko "uholde nagusirik" izan zenik inoiz, baina bada hainbat zientzialari Noek bizi izan zuen berrogei eguneko euri-jasa Israelen gertatu izana ukatzen ez duenik.

Nik neuk entzun izan ditut Israelgo itsasbaterreko dunetan, bertan izan omen zen uholde handi-mandiari buruzko zertzeladak eta azalpenak.

Auskalo Bibliak jasotzen duen uholde nagusia inoiz gertatu ote zen baina, gertatzekotan, zalantzarik ez gero urpean geratutakoa ez zela mundu osoa izan, Noek eta bere familiak ezagutzen zuten mundu partikularra baino.

Tokian tokiko uholde harek ez zuen munduaren historiari aldatu baina bai, ordea, Noeri berari zuzenean zegokion historiarioa: bere historiarioa, alegia.

Azken urteotan jasaten ari garen krisialdiaz ere antzerako esan genezakeen. Krisialdia bai, baina ez unibertsala. Mendebalde klasikoak maldan beheara egin duen bitartean, Brasilek, Errusiak, Indiak eta Txinak gora egin dute nabarmen, eta gorantza ere Mexikok,

Nigeriak, Malaysiak eta beste hainbatek. Sistemak porrot egin duela diotenei Noerena gertatzen zaie, euren mundutxoan ezagutzen dutenaz ari direla, ez munduaz.

Gainera, gure mendebaldeko mundutxo honetan ere "mundutxotxoak" daude. Hau da, 2010 urtean zehar Europar Batasunaren hazkuntza +%1,7 izan da bai, baina Alemaniarena +%3,6 izan den artean, Espainiarena -%0,1.

Bada diotenei (BBVA Research) espainiar ekonomia %0,9 inguru haziko dela datorren urtean.

Baina, jakina, ez denean berdin. Euskal Autonomia Elkarteak, Nafarroak eta Madrilak %1,5 egingo omen duten arren gora, Gaztela-Mantxa, Galizia, Valentzia eta Murtzia %0,2 inguruan arituko omen dira.

Edozein modutan, panorama benetan larria lanik gabe daudenentzat. Hogei urteko adinaren bueltan daudenentzat benetan urte latzak datoz.

Alde egiteko premia ere ez da batere berria Euskal Herrian. Orain hamar urte dituzten neska-mutikoez garai hoberik ezagutuko al dute!

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Leire Kortabarria
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zure buruan dena antolatua dago. Marrak, koloreak, moduluak, angeluak... Gauza bakoitzak funtzio bat bete behar du, alderdi estetikoak baztertu gabe. Horregatik Kibuc-en altzari-proposamen ugari aurkituko dituzu, egia bihurtzeko zure ideiak eta zure mundua. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara arrazionala



gutxieneko prezioa bermatuta



879 €

73,25 € x 12 hilabete interesik gabe*



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Nuit programa. Oheak (150x190ko koltxoiarentzat), oheburukoak eta gau-mahaitxoek osatutako multzoa. Akaberak: haritza errauts kolorean eta zerbinoak. Neurria: 320 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. * Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Patxi Montiel | Herri Kandidaturako zinegotzia izan zen Elgetan (1979-1983)

- ▶ Demokraziaren hastapenetan agintaldi bat egin zuen Udalean, Basauri alkate zela
- ▶ Sasoi hartan alderdi ezberdinen artean zegoen elkartasuna nabarmentzen du
- ▶ Aspaldian Urretxu bizi da, baina sarritan etortzen da Elgetara, gurasoak han bizi dira eta

"Baliabide falta irudimenarekin eta guztien inplikazioarekin ordezkatzeko gure orduan"

EDU MENDIBIL | ELGETA

Azken 25 urteotan Urretxun bizi den arren, astero etortzen da Elgetara Patxi Montiel (Aren, Huesca, 1953). Gurasoak Andaluziakoak ditu eta 1958 aldera etorri ziren haiek Elgetara. Hantxe bizi dira oraindik. Talleres Etxeberria lantegian egin du lan Patxi beti, 14 urte zituenetik joan den urtera arte. Bistan da pertsona ezaguna dela. Ostatu tabernaren kanpoaldean elkarrizketa egiten ari gine-la, makina bat herritar hurbildu zitzaizkion, hitz gozoezin agurtzera. Noizean behin irrintzi bat entzuten da Elgetan: Patxiaren mugikorraren tonua.

Makina bat aldatuko zen Elgeta Udalean egon zinetenetik...

Ikaragarri. Asko aldatu da Elgeta, eta bizi kalitatea hobetu. Sasoi hartan demokraziaren hastapenetan ginen eta dena egiteko zegoen. Pentsa, Udaleko aurrekontua zazpi milioi pezeta zen orduan. Kirol eta gazteriari zuzenduta, 50.000 pezeta. Atera kontuak. Aurrekontu guztia kaleen garbiketara, farolaren baten berritzea eta horrelako lan txikietan joaten zen. Baliabide falta irudimenarekin eta guztien inplikazioarekin ordezkatzeko gure orduan. Udaltzain, kale-garbitzaile edota igeltsu jardun behar izaten ginen. Baina, zorionez, jendea erabat inplikatzeko zen. Laguntza behar bazenuen, segituan altxatzen ziren hamar, hogeita esku laguntzeko gertu. Hori igartzeko faltan gaur. Herriko giro horrek behera egin du eta dena konpontzen da dagokionari ordainduta. Talloia luzatu eta kito.

Zelan animatu zinen hauteskundeetara aurkeztera?



Patxi Montiel, Elgetan, joan den martitzenean ateratako argazkian. | E.M.

Ez dakit ba... Ni baino hobeto prestatutako jendea egongo zen lan horretarako, baina... Ozkarbi elkarteko mendi saileko presidentea nintzen orduan eta nik

uste dut horregatik deitu zidela. Herriari begira lan egiten genuenez, hortik etorri zen proposamena. Herri Kandidaturako alkategaia Jose Luis Zabalondo

izan zen eta ni bigarrena nintzen zerrendan. Biak atera ginen zinegotzi. Gurea orduko Herri Batasunaren hurbileko taldea zen, independenteek lau ordezkari



1981ko jaietan toreatzaile jantzita (bizarrarekin), udaletxeko ordezkariekin. | OSTATU

"Bizi kalitatea hobetu arren, orduko herri giroa sumatzen dut faltan gaur"

"Udalbatzako kide guztien helburu bakarra herriaren alde lan egitea zen"

lortu zituzten (Patxi Basauri alkatea tartean) eta EAJk hiru zinegotzi. Oso oroitzapen onak ditut. Politikak ez zuen gaur bezain beste agintzen eta herrirako lan egitea zen gure helburu nagusia. Eztabaida batzuk izaten ziren, noski, baina elkarrekin aritu ginen lanean. Udalean jardun ondoren, askotan joaten ginen denok Intxorta elkartera. Jabier Arantzeta zenak *kubata* onak prestatzen zitzaizkion. Benetan giro ona zegoen gure artean. Agintaldi bakarra egin nuen, handik aurrera politika agintzen hasi zelako, elkar-tasunaren kaltetan.

Orduan egindako lan bat nabarmenduko zenuke?

Lan txikiak izan ziren orokorrean. baliabide gutxi genituelako, batik bat. Esaterako, futbol zelairik ez zegoen, eta enpresa batek industrialdean utzitako orubea egokitu genuen. Diru eskasiaren beste adibide bat: jaietarako zezen bat eta ahari pare bat erosi genituen. Eta zezena adar bakarrekoa zen! Jaien ostean zezena eta ahariak zozketatzen genituen, nolabait jaiak finantzatzeko. Aizkolariendako apeak-eta nonbaiten lapurtuko genituen... Bestalde, Debagoieneko Mankomunitatea orduan hasi zen martxan eta Kanpanzaroko zabortegia izan zen lan nagusietakoa.

2006an 1981eko zezenketa errepikatu zenuten orduko toreatzaileek...

Bai, sekulako giroa egon zen eta polita izan zen hura gogoratzea. *El Concejalillo* nintzen 1981eko zezenketan: barre onak! 25 urte geroago, zezena bi adarrekoa zen eta kontuz ibili beharra zegoen, badaezpada...

25 URTE SENTIMENDUZ

GOIENA TELEBISTA | BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOAREN 25. URTEURREN KONTZERTUA

UZTAILAK 2, 14:35 ETA 21:30

UZTAILAK 3, 10:30 ETA 23:00



HERRIAK

BERGARA

Arrizuriagako parkea uztailerako zabaltea da Udalaren asmoa

- ▶ Apiriletik txukuntze lanak egin dituzte parkean eta lanak bukatzeaz dira
- ▶ Hiru sarrera izango ditu Arrizuriagako berdegune publiko berriak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udaleko lorazainak lanean dira egunotan Arrizuriaga parkean. Oraindik ere lana egiteko daukate parkea publikora zabaldu aurretik. Udaleko iturrien arabera, uztailearen bukaeran zabaltea da asmoa. Edozein modutan, data zehazteke daukate oraindik. Zabaldukoan herritar ugarik aspalditik egindako eskaerari erantzuna emango zaio. Izan ere, herri erdian dagoen parke horrek urte mordo darama itxita. Hasi-erabaten, udaberrirako zabaltea zen asmoa, baina lanak uste baino gehiago luzatu dira eta udan zabalduko dute azkenik. Herri-tarrek parkeaz gozatzeko aukera izango dute aurki.

Zuhaitz ikusgarriak

Untzeta jauregia XVII. mendekoa da eta lorategia ordukoa da. Sasoi hartako tendentzia paisajistikoak jarraitu zituzten lorategia antolatu eta hornitzeko orduan. Balio handikoa da gaur egun ere eta kultur ondare izendapenari eutsi nahi zaio. Besteak beste, astigar eta zedro ikusgarriak dira parkearen barruan.

Untzeta jauregia eta lorategia bereizten dituen errepidea egin zuten 2007an, Espaloiatik, Mariaren Lagundiatik Ramon Maria Lili zeharkatu eta Ibargaraino datorrena hain justu. Gaur egun XX. mendearen hasieran eraikitako Arrizuriaga etxeak ematen dio izena parkeari. Bestalde, orain dela hiru urte, 20. areako urbanizazioarekin jarraituz, parkea

ren ondoan zegoen adreilu gorriko txaleta bota zuten. Orduetik pilotutako lurrak ere erretiratu behar izan dituzte apiriletik hona.

Esan bezala, nagusiki parkea txukuntze lanak izan dira azken asteotan egin dituztenak: sasiak kendu, belarra moztu, zorua berdindu eta bestelakoak. Antzibar enpresako langilez gain, udal brigadako langileek, lorazainek eta igeltseroek jardun dute. Parkea egokitzeko lanek 33.000 euro inguruko aurrekontua izan dute. Arrizuriagaren atzealdean dagoen ezpondaren ertzean egurrezko hesia jarri dute istripuak saihesteko, erorikoren bat edo beste gertatu izan baita bertan.

Bergarako berdegune publiko berriak hiru sarrera izango ditu: nagusia, Espaloian dagoena; Ramon Maria Lili kalera ematen duena (sarrera horrengandik gertu harrizko bi hesi gurutzatzen dira gaur); eta, azkenik, umeendako jolastokiaren ondokoa, Ibargaraino plazatzokoa.

Permutaren zain

Arrizuriaga eta Seminarioaren arteko permuta gauzatzeko ahalgintetan jarraitzen du Udalak. Errege Seminarioa herriarendako berreskuratzea da Udalaren asmoa eta trukean UNED ikastetxea Arrizuriagan kokatuko litzateke. Hasi berri den agintaldian irtenbidea topatu nahi zaio auziari. Bien bitartean, Arrizuriagako parkea zabalteaz da eta berri pozgarria da hori.



Arrizuriko sarrera nagusia. Gaur egun, permutaren zain, Jardun elkarteak erabiltzen du jauregia. | E.M.



Ibargaraino plazatzokoa, umeendako jolastokiaren ondoan dagoen sarrera itxita dago oraindik. | E.M.



Parke barruko bideak egokitu dituzte azken asteotan. | E.M.



Zedro ikusgarri bat ezponda ondoan. | E.M.



Ramon Maria Lili kalera ematen duen sarrera. | E.M.

ARRASATE

San Juan Jaiak, etenik gabeko egunak eta gauak

- ▶ Osagarri askorekin, aurten jaiak goi-goitik ospatu dituzte herritarrek
- ▶ Gaztetxeko kontertuekin aurtengo jaiak amaitutzat eman ziren atzo

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Eguenean hasi eta atzo arte, Arrasateko goi-goitik ospatu ditu aurtengo San Juan Jaiak. Eguneko ekintzetatik, jai giroa goizaldeko ordu txikiak arte luzatu da egunero. Zezenak, puzgarriak, umeentzako ekintzak, ikuskizunak, parrandak eta jan-edana izan dira, besteak beste, aurtengo jaietako osagarri nagusiak.

Amaitu dira aurtengo sanjuanak. Atzo izan zen azken eguna eta arrasatearrek, inguruko herrietako bizilagunekin batera, azken egunean ere jai giroari eutsi zioten. Eguenean hasi eta domekara arte, hasieratik amaierara, herritarrek dena eman dute.

Egun eguerdiko txupinazoa-ekin hasi ziren jaiak. Hasierako ekitaldi horretan koadrilak izan ziren nagusi. Nork bere kamiseta soinean zuela, txosnen irekiera gustura ospatu zuten. Suziriak zeruan eztanda egin orduko txosnagunean batutako gazte gehienek, denek ez esatearren, tragoa eskutan zuten. Eta koadrilen arteko bazkarian sortutako giro horretatik makalaren igoerara, Errementari Dantzara eta Danborrada salto egin zuten denek, beste ehunka lagunekin batera.

Aurten gainera, jaietako lehenengo egunak ikutu berezia eduki du. Izan ere, danborradak 50. urte betetzen zituen eta hori ospatzeko Uharkapen afaria egin zuten danborradako kideek.

Normala den moduan, dantzak eta danborradak jende asko batu zuten, urtero moduan, baina bertaratu zirenen esanetan, aurten parte-hartzea askoz handiagoa izan da.

Lehenengo egun handia pasatu eta gero, hurrengo egunean, egubakoitzean, gaupaseroek aurre-

ko egunean herrian egondako festa giroari eutsi zioten eta testigua etxetik jaitsi berri zirenei pasatu zieten, eguerdi aldera.

Erraldioen eta kilikien txanda

Bigarren egunean erraldoiak eta kilikiak izan ziren protagonistak. Konpartsak hamasei erraldoi baditu ere, hamabi izan ziren kalera irten zirenak. Izan ere, lau, zaharrenak, erakusketarako daude bakarrik.

Herriko kaleetan zehar kalejira egin eta gero, jaietako testigua joku erraldoiei, errekortadorei eta dragoitxoiei pasatu zieten.

Aurreko egunean hasitako giroari eutsiz, dragoi jana goi-goitik ospatu zen plazan. Eta bapojan eta gero, golden Apple Quarterrek girotu zuen gaua. Atzetik Oihan Vegaren diskofestaren txanda izan zen. Eta behin musikarekin hasita, goizaldera arteko orduak kontzertuek bete zituzten, txosnetan eta gaztetxean.

Zapatua ere ez zen atzean geratu. Goizean goizetik hasita, Umeen eta Gaztetxoeren Eguna eguraldi onarekin ospatu zen, bero gehiegirekin akaso.

Eguzki Laru izan zen egun horretako izarra. Umeak gustura asko ibili ziren berarekin argazkiak ateratzen eta Biteri plazan Txatxilipurdikoez antolatutako jolasetan parte hartzen.

Puzgarriak, margoak, karaokea eta ur-jolasak izan ziren nagusi Biterin. Baina Zaldibarren ere beste txoko bat zegoen, Gaztegunea.

Jaietako azken eguna

Bi guneetan, beroari aurre eginez, umeak eta gazteak primeran pasatu zuten. Dantza eta kanta artean ibili eta gero, eskalada txapelketak, errekortadore eskolak eta umeendako berbenak hartu zuten protagonismo guztia. Herriko txikienean egunari amaiera emateko osterara, su artifizialek Arrasateko zerua kolorez eta eztandaz tintatu zuten.

Indarrak galdu gabe, baina zertxobait nekatuta, jaien azken egunean, atzo, herritarrek ez zuten hutsik egin, beste behin. Egun osoan batetik bestera ibili eta gero, Erdizka Lauetan taldearekin eta gaztetxeko rock kontzertuekin agur esan zuten sanjuanek.



Aurten danborradak 50 urte bete ditu eta bertaraturakoen arabera, "inoiz baino jende gehiago".



Oilasko usainak herritarrek plazara erakarri zituen atzo. | JULIO CALLEJA



Apar festa beroari aurre egiteko ekintza bilakatu zen zapatuan. | JULIO CALLEJA



IÑAKI ETA ASIER

"Kontzertuak eta zezenak dira gehien gustatzen zaizkigunak. Eta nola ez, parrandak. Azken hori barik ez dago jairik eta. Baina guk zezenak eta kontzertuak ez kentzea eskatzen dugu".



GORKA ETA PATRICIA

"Ez dago ezer bereziki gustatzen zaiguna. Orokorrean nahiko pobreak dira jaiak. Zezenetara joateko ere sarrera barik geratu gara, semea ere bai, eta hori onartezina da".



KARLOS, JULIA, MAY ETA JON NESTOR

"Sua, danborrada eta horren inguruan egiten den jai guztia dugu gustuko. Eta ezin ditugu albo batean utzi parrandak, horiek aipatu egin behar ditugu. Azken finean, gutxi badira ere, egiten ditugu eta jaien parte dira".



Makalaren igoyerarekin hasi ziren jaiak, eguenean. | JULIO CALLEJA



Errementari Dantzak herritar asko erakarri zituen, urtero moduan. | JULIO CALLEJA



Alkate berria, dantzan. | J.C.




niago batu zuen"; plaza bete-bete egin zen. | JULIO CALLEJA



Beste behin ere sua piztea dragoiaren egitekoa izan zen. | JULIO CALLEJA



Kale antzerkia, zapatuan. | J.C.



Oihan Vegaren diskofestak plaza dar-darka jarri zuen egubakoitzean. | SERGIO AZKARATE



Ume eta Gazttxoen Egunean Eguzki Laru izan zen eguneko protagonista nagusia. | JULIO CALLEJA



IRAIA ETA MAREN

"Errementari Dantza da jaietatik gehien gustatzen zaigun ekintza. Giro ona egoten da eta ikaragarri gustatzen zaigu. Zezenak aldiz, ez zaizkigu asko gustatzen".



JURGI

"Zezenak dira onenak. Ez naiz animalien aurrean korrika jartzen baina errektadoreen eskolan parte hartzen dut eta asko gustatzen zait egoten den giroa".



TATIANA

"Jaietan denetik dago eta ahal dudana ekintza guztietan parte hartzen dut. Hori bai, eskaera bat daukat: zezenak zertxobait goizago izan beharko lirateke, beranduegi egiten zait".



JOKIN

"Zezenak dira jaietako onenak. Nagusitan toreroa izan nahi dut. Orain errektadore eskolan praktikatzen dut".



JULIO CALLEJA

DRAGOI JANA Egubakoitzean, urtero egin bezala, dragoi jana egin zute herritarrek plazan. Hasiara baten mahaiz beteta zegoen plaza di-da batean jendez gainezka jarri zen. Platera eskuetan zutela, herritarrek jan eta edan egin zuten. 400 txartel atera zituzten antolatzaileek eta denak agortu ziren; jendea txartel barik geratu zen. Bapo jan eta gero, dragoi janetik Golden Apple Quartet taldearen kontzertua ikustera joan ziren han bildutako asko eta asko.



JULIO CALLEJA

ERREKORTADOREAK ETA ENTZIERROA Animalien ikuskizunak, errekortadoreak eta entzierroak esaterako, "ezustekorik gabe" joan direla esan dute antolatzaileek. "Oso pozik gaude; balorazio positiboa egiten dugu". Egubakoitzean zezena igerileku barruan sartu eta batzuk hari tiraka ikustea "gogorra" izan zela esan zuenik bada ere, antolatzaileak gustura geratu direla diote. "Hori bilatzen dugu; ikusgarria izan zen".

DATUAK

1.440

ZEZENAK

Zezen plazak aurten ere muga eduki du eta 1.440 herritar sartu dira.

50

DANBORRADA

Herri bazkariak arrakasta handiagoa dauka, urtetik urtera. Aurten inoiz baino txartel gehiago saldu dira.

12

ERRALDOIAK

Aurten hamabi erraldoi atera ditu konpartsak kalera; berriak lau izan dira.



JULIO CALLEJA

'SEGWAY' ETA 'EZY ROLLER' Tramankulu bitxiak dira, baina batetik bestera joateko, ostera txikitxoetarako, oso erosoak dira. Erakargarritasun horrekin, atzo herritarrek ez zuten ikusle hutsak izan nahi. Teknologia berriak probatzeko grinari jarraituz, asko izan ziren tramankulu modernoetara igo eta bueltatxo bat egiten ausartu zirenak.



JULIO CALLEJA

ERDIZKA LAUETAN Urtero egiten den ekintza bat da eta aurten ere ez du hutsik egin. Beroari aurre egin eta herritarrek ez ziren atzean geratu. Hizlari batek dantza gidatzen badu ere, gehientsuenek ondo asko dakite nola egin behar den dantza eta aurten ere ez da gutxiagorako izan. Borobila eginez, jo eta ke ibili ziren denak dantzan. Jaietako egitarauko azken ekitzen artean kokatu zen dantza saioa eta ondorioz, jaietako egur esateko gogo asko ez zegoenez, herritarrek hasiera-hasieratik amaierara arte hantxe egon ziren, plazan, hankak mugitzen.



Egubakoitzean, erraldoi ertain berriek herritarren begiradak erakarri zituzten kalejiran. | ASIER ALKORTA



Motoclon taldeak zapatu gaua girotu zuen txosnetan. | JULIO CALLEJA

ONATI

Erljioa, tradizioa eta folklorea bat eginda Corpus prozesioan

Apostoluek ileorde berriak eta maskara eraberrituak jantzi zituzten

AMIA TXINTXURRETA | OÑATI

Prozesioko irudiak parrokiara eramane eta gero hasi zen domekako 11:00etako meza. Bitartean, Santa Ana antzokian, jendaurrean, jantzi zituzten San Migel, Jesus eta Apostoluak.

Fernando Diazek eman zion bizia bosgarren urtez San Migeli eta oraingoan ez dela urduri egon aitortu zigun; herritar guztiak plazan begira-begira izan zituen bueltak nola ematen zituen ikusteko, besteak beste, eta lan ederra egin zuen Diazek.

Herritarrek, ohikoa den bezala, dotore-dotore jantzita irten ziren prozesioaz goatzera eta kaleak jendez lepo egon ziren.

Ileordeak eta maskarak

Apostoluek ileorde berriak estreintatu zituzten –batzuk ilezuri eta guzti, karakterizazio hobea egiteko– eta maskara eraberrituekin irten ziren; arinagoak eta higienikoagoak.

Dantzariak, mundial

Dantzariak lan ikusgarria egin

zuten, beste behin. Julen Kortabarria kapitainaren gidaritzapean, aurretik prozesioan dantzan irte-dako Asier Alonsok, Unai Azkoi-tiak, Arkaitz Bengoak, Ander Zabaletak eta Ibai Gonzalezek errepikatu egin zuten. Eta hiruk debutatu: Gorka Lazkanok, Mikel Ugartek eta Mikel Biainek.

Udalbatzako kideak

Bilduko kideek eta alkateak ez zuten prozesioan udalbatza moduan parte hartu. Aldiz, EAJ-ko bost zinegotziak irten ziren.



San Migel eta Apostoluak parrokiatik atera berri. | JULIO CALLEJA



Santa Anan San Migeli ileordea ondo jartzen. | A.T.



Dantzariak San Migelen ondoan dantzan. | J.C.



Kale Zaharrean jendea bedeinkatzen. | J.C.



M. KARMEN ASTIGARRAGA
OÑATI

"Corpus jaiak asko gustatzen zaizkit; ohitura da eta jarraitu egin behar da. Apostoluak nola jantzen dituzten ikusten ere izan naiz, familiako bat irtengo delako. Ondoren bazkaltzera joango gara".



ANGEL EGAÑA
OÑATI

"Kofradiako kide naiz aspalditik eta barru-barrutik bizi ditut Corpusak. Aurten gutxi gorabehera 25. urtez irtengo naiz prozesioan kapa jantzita, eta ilusio handia egiten dit".



LOURDES BEDIA
OÑATI

"Domekakoa egun zoragarria izaten da; gehien gustatzen zaidana da dantzarien kriskitin hotsa, emozionatu egiten nau. Bestela, lagunekin eta familiakoekin igaro ditut jaiak".



KONTXITA BEITIA
OÑATI

"Asko gustatu zaizkit Apostoluen ileorde berriak; aldatzeko beharra zuten. Goizean goiz irten naiz prozesioa leku onetik ikusteko eta, nola ez, dotore-dotore jantzeko ere aprobeztatzen dut eguna".



JOSE LUIS MARKINEZ
OÑATI

"Urtero-urtero jarraitzen dut gertutik prozesioa eta asko gustatzen zaizkit jai hauek. Gustura ikusi dut beste behin prozesioa. Gero, ondo jan eta edango dugu".

ANTZUOLA

Festa giroa herrian, Ondarretik Kalebarrenera

Kalebarrenen urtero egiten den sagar-dantzak jende ugari bildu zuen zapatu gauean

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

San Juan bezperarekin hasitako jai-giroak atzo, domeka, izan zuen bukaera Antzuolan. Jaiak izan dira aste bukaeran Ondarren eta Kalebarrenen eta jende ugari ibili da bi auzoetan antolatutako ekintzetan.

Zapatu arratsaldean eta gauean izan ziren ekintza jendetsuenak: Ondarreko plazan igerilekuak

jarri zituzten umeendako eta egiten zuen beroa arintzeko aukera paregabea izan zuten txikienek. Ondorengo *Hiru, bi, zast egizu jolas!* antzezlan umoretsuarekin ere disfrutatu zuten txiki eta helduek.

Itsaso eta Jon irabazle

Urtero Kalebarrenen egiten den arbola jasotzean Zurrategi eta



Umeak freskatzen, Ondarreko igerilekuan. | USOA AGIRRE



Arazorik gabe jaso zuten Kalebarrenen arbola. | USOA AGIRRE

Kalebarren inguruak jendez beteta izan ziren; arazorik gabe jaso zuten arbola auzoko mutilek. Afarian 60 bat lagun bildu ziren pasta-entsalada eta oilaskoa jate-

ko. Afariaren ostean, Gozo-gozo erromeria taldearen musikarekin batera, hasi zen sagar-dantza. Antolatzaileek jarritako oztopo guztiak gaindituta, Itsaso eta Jon

izan ziren sagar-dantza bereziko irabazleak. Markel eta Ainixe izan ziren bigarren eta hirugarren saria, berriz, Mikel eta Estitxuk jaso zuten.

Udalaren jarduna antolatuko duen osokoa, uztail hasieran

Osoko bilkurari begira, alkatetzak asteon egingo ditu bilerak alderdiekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Seguruena San Fermin egunean egingo da datozen lau urteotan Udalaren jarduna antolatu eta funtzionamendua zehaztuko duen ezohiko osoko bilkura. Halaxe azaldu du Inazio Azkarraga-Urizar alkateak: "Uztailaren 7an egitea da gure asmoa, baina aurretik beste alderdiekin bilerak egingo ditugu". Alkateak jakinarazi du Bildu eta Aralar akordiora heldu direla batera joateko. Hala, bada, Bilduren 11 zinegotzien botoei Aralarko Joxe Etxeberriaren botoa batuko zaie aurrerantzean. Hala, batzorde informatzaile baten ardura izango du Etxeberriak.

Hala ere, alkateak gainerako alderdiekin bilerak egin aurretik ez du publiko egin nahi izan batzorde bakoitzeko buruen izena.

Hamaika erabaki garrantzitsu

Bilkuran hainbat erabaki hartuko dira, guztiak udal funtzionamenduak behar duen antolaketa-rekin zerikusia dutenak. Inigo Garitano udal idazkariak emandako argibideen arabera, bi zati izango ditu bilkurak: batetik, ekainaren 11ko udal eraketa bilkuratik uztaileko bilkurara arte alkateak hartu dituen erabakien berri izango du osokoak. Hauek dira erabaki garrantzitsuenak:



Seguruena uztailearen 7an egingo da Udalaren jarduna antolatzeko bilkura; irudian, udal eraketarena. | JOKIN BEREZIARTUA

Tokiko Gobernu Batzarreko kideak eta alkateordeak izendatzea, alkateari legeak ematen dizkion eskuduntzetatik zeintzuk uzten dituen bere esku eta zeintzuk uzten dituen gobernu batzarraren eskuetan. Erabaki hauek erabat aldagarriak

dira. Bestalde, osokoak onartu beharreko erabakiak daude. Besteak beste, batzorde informatzaile iraunkorren kopurua eta horietako arduradun politikoa zehaztea, udal karguen konpentsazio ekonomikoak zehaztea –zein zinego-

tzik izango duten liberazio ekonomikoa eta zenbatekoa– eta Udala kide den erakundeetako arduradunak izendatzea. Azken horien artean daude, esaterako, Mankomunitatea, AUKEA kirol erakundea eta Iturbide egoitza.



Lehiaketako lanetako bat. | GOIENA

Photomiradas lehiaketan 23 lagunek hartu dute parte

J.B. | ARRASATE

Arizmendik lehenengoz antolatu duen Photomiradas argazki lehiaketak 23 parte hartzaile izan ditu. Ekimenaren helburua da Erizaintzako Laguntzaile lanbidearen garrantzia azpimarratzea. Argazkiak humanitatea, enpatia, profesionaltasuna edota duintasuna moduko kontzeptuen ikuspuntutik atera dira.

Estatu mailako lehiaketa da eta Debagoieinako zein Euskal Herriko parte hartzaileez gain, Madril, Valentzia eta Bartzelonatik jaso dituzte lanak, besteak beste. Publikoaren saria emateko aukera dago oraindik, gaur, hilak 27, da horretarako azken eguna: www.facebook.com/photomiradas helbidean bozkatu daiteke argazkirik onena. Datoren urtean, berdina izango ez den arren, lehiaketa errepikatu egingo dute.



TERE EGIDAZU

1962ko sanjuanetako argazkia

San Juan jaiak amaitu dira. Bada, Tere Egidazuk duela ia mende erdi hartutako erretratu bat ekarri digu erredakziora. 1962ko ekainaren 26an Santa Barbarako Bekobalu zelaian hartutakoa da eta hauexek dira protagonistak: Ramon Bidaburu, Tere Egidazu, Jesus Mari Markaide eta Paco Antsoategi. Egidazuk adierazi duenez, hil berri den Paco Antsoategiren omenez argitaratu gura izan dute argazkia.



GOIKOBALU GAZTE

Goikobalukoaren Bartzelonako bira borobila izan da

Goikobalu Gaztekoak lau eguneko bira egin zuten Bartzelonan: "Bidaia borobila izan da, bai emanaldietako arrakastagatik eta baita lau egunetan gazteek bizitako esperientziengatik ere", adierazi du Rakel Murgiondo abesbatzako zuzendariak. 37 kantariko taldeak hartu zuen parte biran eta bi saio egin zituzten: Bartzelona Euskal etxean eta hiriburuko Can Castello Kultur etxean. Esperientzia hunkigarriena M-15 mugimenduko kideekin bizitakoa izan zen, Murgiondoren arabera: "Kanpaldi erdian abesteko baimena eskatu genuen eta bigarren kanturako jendetzaz inguratuta geunden. Txaloka, malko batzuk ere entzule batzuen begietan...".

Koldo Otamendi | 'Musikazuzenean.com' webguneko koordinatzailea

"Kontzertuak sustatu eta taldeei ate berri bat zabaltzea da helburua"

lazko udazkenean jarri zuten abian zuzeneko musikaren gaineko webgunea; egunero 500 erabiltzaile inguru izatera iritsi da denbora gutxian

EDU MENDIBIL | BERGARA

Gaztetxearen 11. urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, aurreko martitzenean Koldo Otamendirekin mahai-ingurua egin zuten Bergaran. Aspaldian herriz herri dabil Otamendi, joan den urtean abian jarritako www.musikazuzenean.com ekimenaren berri ematen. Udako oporren bueltan Arrasateko gaztetxean izango dela agindu zigun.

Musikazaleentzat erreferentzia bilakatu da zuen ataria...

Joan den urteko urrian hasi ginen eta azken neurketen arabera 400-500 lagun sartzen dira egunero webgunean. Europan leku gutxi izango dira Euskal Herriak bezain beste zuzeneko musika emanaldiak jasotzen dituenik. Lur eremu aberatsa da gurea musikari dago-kionean. Zaila izaten da iragarritako emanaldi guztien informazioa biltzea eta hutsune hori betetzea da gure asmoa. Zuzeneko kontzertuak sustatu eta, aldi berean, musikariei zein aretoei beste ate bat irekitzea.

Ez da agenda hutsa baina.

Agendaz gain, argazki galeria bideo galeria eta kronika idatziendako tartea dago. Mahai gainean menua jartzen diegu nolabait erabiltzaileei, beraiek informazio osatuena izateko eta hortik abiatuta aukera dezaten. Oraindik jende asko prentsako *klabijarekin* dabil, eta webgunea-



Koldo Otamendi Bergarako gaztetxean izan zen aurreko astean. | E.M.

"Musika mugida ikaragarria dago gaur, baita Debagoienean ere"

ren abantailetakoa bat zera da: aukera ematen duela informazioa etengabe berritzen joateko, momentu oro eguneratzeko.

Euskal musikaren panorama gaur? 1980ko hamarkadan dena egiteko zegoen eta estimatzeko da gaztetxeek, fantzineek edota irrati

libreek egindakoa. Eszena sortu zuten beraiek. Horri esker gaur egun ia edozeinek dauka zuzeneko jotzeko aukera. Musika mugida ikaragarria dago eta Debagoiena da zonalde aberatsenetakoa. Agian gauza berriak ezagutzeko dagoen interes falta da arazorik handiena. Estilo jakin batera lerratzen da jende gehiena.

Argazki erakusketa gertatzen ari zarete.

Bai, Euskal Herri osoko 15 argazkilariren 75 argazki batu eta herriz herri erakutsi nahi ditugu, kultur etxeetan eta horrelakoetan.

Marian Bosquek lehen saria jaso du Lanbide Heziketan Ekimenari sarietan

'AyudARTE' proiektuari esker 3.000 euro jaso zituen Gasteizen

E.M. | BERGARA

Marian Bosque zaharbertzailea saritu zuten joan den martitzenean Lakuako areto nagusian, Euskal

Herriko Lanbide Heziketan Ekimenari sarien 5. banaketa ekitaldian. *AyudARTE* webguneari esker lehen saria irabazi zuen

Marian Bosque eta 3.000 euroko saria jaso zuen. Zaragozako izan arren, 2002a ezker Bergaran bizi da Marian Bosque eta Miguel Altunako arduradunen laguntza jaso zu proiektua gauzatzeko.

Ekintzaileak sustatu

Aurreko ikasturteetan bezala, Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleen artean ekintzaile kultura eta enpresa ekimena garatzea eta sustatzea da sari hauen helburu nagusia. Egindako lan bikainaren jendaurreko errekonozimendua adierazi nahi dute antolatzaileek. Tknika zentroak antolatzen ditu sariok, Hezkuntza Sailaren Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako Sailburuordetzaren laguntzarekin. Marian Bosquerekin batera, Iñaki Larrañaga Miguel Altunako zuzendaria eta Gema Murua izan ziren Gasteizen.



Iñaki Larrañaga, Marian Bosque eta Gema Murua irakaslea. | MIGUEL ALTUNA



Urteko gauza txarrak erre zituzten, dantzarien eta txalapartarien laguntzaz. | M.B.

Ehunka lagun batu ziren aurten ere plazan, San Juan suaren bueltan

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Herri Mugimenduak San Martin plazan piztutako suak urtean gertatutako gauza txar guztiak erre zituen. Kondairek, musikak eta dantzak alaitu zuten egun gaueko ekitaldia. Dantzari taldeak piztu zuen San Juan sua

plazan. Herri Mugimenduak antolatzen duen ekitaldiak ez du aurten ere hutsik egin, eta gero eta jarraitzaile gehiago dituela argi geratu zen: ehunka herritar batu ziren suaren bueltan, magia jantzita dagoen ekitaldiaz gozatzeko.

OHARRAK

AQUAPARKERA IRTEERA

2000. urtetik aurrera jaiotakoei zuzendutako irteera da uztailearen 6an Arcachonera egingo dena. Izen-ematea (18 euro) kultura etxean egin daiteke, ekainaren 29ra arte. Argibide gehiago: 943 77 91 58.

ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

Udalak gogorarazi duenez, ondasun higiezinaren gaineko zergaren 2011ko erreziiboak ordaintzeko

epea egunean, ekainaren 30ean, bukatuko da. Argibide gehiago 943 77 91 33 telefonon.

UDALEKUAK: BILERAK ETZI

Etzi, ekainak 29, udalekuek haurren gurasoekin bilerak izango dira. Haur Hezkuntzako gurasoekin bilera 18:00etan izango da Zabalotegin, eta 19:00etan Lehen Hezkuntzako haurren gurasoen txanda izango da.



E.M.

Biribilgune berria San Lorentzon

Biribilgune berria jarri dute San Lorentzon, Madinako bidegurutzean. Auto ilara luzeak sortzen ziren inguru horretan, batez ere puntako orduetan Matxiategi aldetik zetorren zirkulazioa zela-eta; bada, beste hainbat biribilgunerekin gertatu izan den moduan, zirkulazioa arintzeko helburuarekin jarri dute. Inguruan etxeak egiten diharduen Grupo Eibarrek egin ditu lanak eta probak egiten ari dira egunotan.



Neska-mutikoak, patinaje ikastaroa hasteko gertu, irakaslearekin, iazko udako kirol kanpainan. | MIREIA BIKUÑA

862 neska-mutikok hasiko dute udako kirol kanpaina

Lehen txanda eta txanda bakarreakoak hasi dira gaur; bigarrena, uztailaren 11n

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udako kirol kanpaina gaur abiaraziko dute. Lehen txandako eta txanda bakarreako kirolekin hasi dira. Guztira 862 neska-mutikok eman dute izena. Horietatik 567k lehen txandan jardungo dute eta gainerako 295ak txanda bakarreakoan.

Lehen txandan diharduten neska-mutikoak uztailaren 8ra arte egongo dira eta txanda bakarreakoak uztailaren 22ra arte.

Arrakastatsuenak, betikoak

Hainbat berrikuntza zituen udako kirol kanpainako eskaintzak aurten. Besteak beste, multiabentura –egubakoitzetan egiteko eta astero kirol ezberdin bat– eta neskendako paleta –mutilek pilota aukeratzeko dutelako–. Bada, bi ekintza horiek ez dute harre-

ra ona izan. Multiabenturan talde bat sortu da, baina paletara ez da neskarik apuntatu. "Berrikuntzak sartu arren, ohiko kirolek dute arrakasta handiena. Aurten ere tenisa, patinajea eta mini-tenisa izan dira harrera onena izan dutenak", esan digu-

te kiroldegiko arduradunek. Hain zuzen ere, patinajea 140 neska-mutiko ibili dira, tenisean 132, mini-tenisean 102, eskaladan 75 eta igeriketara 46.

Uztailaren 11tik 22ra eta abuztuko bi txandatan lekua dute oraindik.

DATUA
567
NESKA-MUTIKO
Horiek dira lehenengo txandako kirol eskaintzetan ibiliko direnak. Uztailaren 8ra arte, egunero izango dute ikastaroa.

DATUA
132
UME
Tenisak izan du, beste behin, harrera beroena neska-mutikoen artean. Talde bat gehiago osatu behar izan dute.

Txanda txartela erabilia sariak dirutan uztailean

M.B. | OÑATI

Txanda dendarien elkarteko kideek kanpaina berezia abiaraziko dute uztailean. Txanda txartela erabiltzen dutenen artean sariak banatuko dituzte. Hain zuzen ere, 10, 20, 50 eta 100 euroko sari zuzenak eskura ditzakete ordainketa dendarien elkarteko txartelarekin egiten dutenek. Guztira, 136 sari banatuko dituzte, eta dirutan 2.000 euro.

Zenbatekoa eta epea

Sariak banatzeko sistema oso erraza izango da. Txartela erabiltzen den unean, dendan bertan jakingo dute sarituak izan diren edo ez. Ordainagirian zehaztuko da zenbateko saria lortu duten eta zein epe duten dirua gastatzeko. Saria lortzen dutenek Txandako dendaren baten egiten duten hurrengo erosketan ordainagiria erakutsi beharko dute.



Txanda txartela erabiliko dute sariak lortzeko. | TXANDA

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

Lanak kultura etxean edo turismo bulegoan utzi behar dira uztailaren 15a baino lehen

M.B. | OÑATI

San Migel eta Errosario jaiak iragartzen dituen egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Kultura Sailak. Bete beharreko baldintzak dira: oñatiarra izan edo Oñatin bizi izatea, edozein teknika libre erabiltzea eta *Oñatiko jaixak 2011* testua agertzea.

Proposamenak aurkezteko epea uztailaren 15ean bukatzen da, kultura etxean edo turismo

bulegoan. Adinaren arabera bitalde banatuko dituzte: 12 urte artekoak eta nagusiak.

Egitarauaren azala

Nagusien atalean aurkeztutako irudi onenarekin jai nagusien egitaraua irudikatuko dute, eta irabazleak 350 euro jasoko ditu. Bestalde, gazteen arteko lan onenarendako opariak izango dituzte, eta irudia argitaratu egingo dute.

San Juan suaren garra kostata piztuz

Hiru urteko etenaren ondoren San Juan sua egin zuten Oñatin hilaren 23an. Kostata, baina su garrek indarra hartu zuten Olaiturrin. Oñatz taldeko dantzariak kolorea ipini zituzten gauari. Lau dantza eskaini zituzten, eta, suari indarra hartzea kosta egiten zitzaiola ikusita, bi aldiz egin behar izan zuten dantzaldia. Oñatzen ekimenez berreskuratu dute ohitura. Herriko ikastetxeetako guraso kontseiluetako kideek parte-hartze zuzena izan zuten antolakuntzan.



INAKI MUÑOZ

Usakoko sorosle zerbitzua martxan irailaren 11ra arte

Eskoletako oporraldiarekin batera, martxan jarri dute Usakoko bainu denboraldia: hain justu ere, ekainaren 25ean abiarazi zuten. Egun horretatik aurrera, sorosle zerbitzua dago irailaren 11ra arte, 15:00etatik 20:00etara.

Udalak sorosle zerbitzua jartzen duenetik, aldaketa nabarmena dago aurten: soroslea arratsaldeetan bakarrik egongo da. "Hainbat faktore hartu ditugu kontuan ordu egiteko: aurrekontua eta jende gehien batzen diren orduak. Hori horrela, erabaki dugu arratsaldeko ordutegira mugatzea", esan digute arduradunek.

OHARRAK

ARAOTZEKO ZOZKETA

Trinitate jaietako zerbaki sarituak dira: lehen saria –landetxe baten aste bukaera bat–, 2.898 zerbakiarendako; bigarren saria –bildotsa eta urdaiazpikoa–, 1.040 zerbakiarendako; eta hirugarrena –bildotsa– 1.529arendako. Hila-beteko balioa izango dute.

TORREAUZOKO KROSA

Uztailaren 3an egingo dute Torreauzoko krosa. Izen-emate epea zabalik: www.kirol-probak.com atarian hilaren 30era arte (zortzi euro), Mendizabal kirol-dendan uztailearen 2ra arte (zortzi euro) edo egunean bertan (12 euro). Parte-hartzaileek 7,5 kilometro egingo dituzte.

ARETXABALETAKO

Basotxo, nagusi elkarte arteko II. olinpiadan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Basotxo erretiratuen elkarte nagusitu da Loramendik antolatutako gastronomi elkarte arteko II. olinpiadan. Eguenean, hilak 23, jokatu zuten azken proba, patata tortilla txapelketa, eta ondoren sariak banatu zituzten. Basotxoren atzetik geratu ziren Muru Alde eta Uratz Alde.

Basotxo, onena sukaldean

Zazpi elkarte hartu dute parte olinpiadan: Muru Alde, Eguzki Alde, Uratz Alde, San Kristobal, Urbaltz, Basotxo eta Batzokia. Hainbat proba izan dituzte azken hilabeteotan, nahiz eta elkarte batzuek ez egin guztiak -hainbat arrazoi tarteko-: mus txapelketa,

berakatz zopa, bolo txapelketa eta patata tortilla.

Sukalde lanetan apartekoak direla erakutsi dute Basotxoko erretiratuek; izan ere, eurek egin dituzte berakatz zopa eta patata tortilla onenak epaimahaiko kideen esanetan. Patata tortillari dagokionez, bigarren geratu zen Urbaltz elkarte eta hirugarren Muru Alde.

Era berean, giroten ere apartekoak direla erakutsi dute erretiratuek, trikiti eta panderoak hartu eta kantuan jardun dutelako elkartutako guztietan. Eguenean, esaterako, elkartez elkarte txikiteoan jardun zuten kantuan eta dantzari, San Juan bezpera girotu bitartean.

ARETXABALETAKO

OHARRAK

TXISTULARI EGUNA ANTOLATZEKO BATZARRA
Debagoieneko II. Txistulari Eguna ospatuko dute gurean, urriaren 9an. Hori antolatzen hasteko batzarra egingo dute gaur, Arkupen (18:30).

ANTZUOLARA IRTEERA
Aretxabaleta Zero Zabor taldeak deituta Antzuolara irteera egingo dute eguaztenean, hilak 29, atez ateko zabor bilketa ezagutzeko. Eliza aurrean elkartu (17:30) eta joango dira Antzuolara.

HAITZARTEETARA IRTEERA
Loramendik, Gazte Ekimenak eta Murruxok antolatuta kanoi jaiak egitera joango dira uztailearen 2an. Izenematea bihar bukatuko da (Loramendi Elkarte).

ESKORIATZAKO

San Pedro jaietan itxita egongo dira udal eraikinetako bulegoak

Udal arduradunek iragarri dute sanpedroetan, hau da, ekainaren 29an eta 30ean eta uztailearen 1ean itxita izango direla udal bulegoak: udaldegia, kultur etxea eta kiroldegia. Bestalde, Ibarraundi museoa zabalik egongo da.



MIRIAN BITERI

200 erretiratu inguru afari-pasa

San Pedro jaietako ongi-etorria egiteko urteroko merienda egin zuten Olazar elkarte erretiratuek eguenean; baita 200 bat lagun elkartu ere. Gernika plazaxoan egitekoak ziren baina eguraldi freskoa zela eta pilotalekuan egin zuten. Afari goxoa izan zuten: hestebeteak, okela gisatua eta flana. Hala, oso gustura bukatu zuten ospakizuna guztiek.

Erdi Aroko euskal emakumeen buru estalkien erakusketa dago Ibarraundin

M.A. | ESKORIATZAKO

Behere Aroan eta Erdi Aroan Euskal Herriko emakumeek erabiltzen zituzten buru estalkien erakusketa dago Ibarraundi museoan. Atzo inauguratu zuten, Estibaliz eta Cañive Santisteban erakusketaren arduradunak han zirela. Uztailearen 22a artean izango dute ikusgai -uztailearen 8tik aurrera goizez bakarrik dago zabalik 09:00-14:00.

30 buruko ikusgai

Ipar eta Hego Euskal Herriko hainbat herritako 30 buruko daude ikusgai, baita XV. mendean Erronkarin erabiltzen zen ohiko jantzi bat ere. Hala, jantziek herri bakoitzaren sentimenduetatik adierazteko orduan duten garrantzia erakutsi gura dute, eta ondorioz, herriaren izaeraren alderdie-tako bat zehazten duela.




Basotxoko kideak Uratz Alde elkartearen kantuan. | M.A.

Tourra abian da! Irabazi aurtengoan Tropelarekin iPad 2 zoragarri bat

Lehiatu Frantziako Tourrean,
sarean, euskaraz eta sariekin...
10.000 parte hartzaile baino gehiago!

IZEN-EMATEA DOAN:
Izena emateko epea:
uztailak 2, larunbata, 13:05ean

Zatoz tropela.net webgunera eta gozatu
gehiago txirrindularitzaz eta Frantziako Tourraz.



www.tropela.net



Txirikil taldeko dinamizatzaile Mireia Berriozabal, Maialen Elortza eta Nagore Ojanguren, haur eta gazteekin. | L.Z.

ELGETA

Goibekoko Txirikil taldea jaio da, eta haur eta gaztetxoek aisialdian egingo dute lan

San Juan bezperan egindako aurkezpen ekitaldia borobila izan zen; antzinako jolasek arrakasta izan zuten haurren eta gurasoen artean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Eguen arratsaldean, San Juan bezperan, egin zuten aurkezpen ekitaldia. Txokolate-jana, argazki erakusketa, aurkezpen bideoa eta antzinako jokoak izan zituzten aukeran herriko neska-mutikoei. Mireia Berriozabal, Maialen Elortza eta Nagore Ojanguren daude Txirikil proiektuaren atzean. Haurren eta gaztetxoek aisialdia bultzatzeko helburuarekin jaio da taldea. "Euren ahotza entzunda antolatuko ditugu ekintzak", adierazi dute Txirikiletik. Hurrengo hitzordua Ferixa Nagusiko jaietako bari-kurako antolatu dute. *Altxorren bila* egingo dute, eta gaztetxoek eskatutako ekintza dela adierazi dute.

Txirikil jokia eta beste

Haurrak, gazteak eta helduak batera jolastea lortu zuten eguean Txirikilekoek. Kanikak, txapak, tortolosak, kromoak, diabolak, zibak... jolas ezberdinak ipini zituzten eskuragarri kiroldegiko kantxan, eta berehala animatu ziren elgetarrak. Taldeari izena ematen dion txirikil jokia ere erakutsi zuten.



Mikel Migura eta Maiala Alkorta, Amaia Iribarrekin tortolosetan ikasten. | L.Z.



Josu Askasibar, etxekoekin txapetan. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean zabalduko dituzte Gaztainuzketako mendi etxeak

Paul Aznal da arduraduna eta inaugurazio ekitaldia egingo dute ibilbide berria hasteko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Egubakoitzean, uztaillak 1, inauguratuko dituzte Gaztainuzketako mendi etxeak, ibilbide berriari hasiera emateko (18:00-21:00). Paul Aznal Larrañagak hartu du horien ardura amaren laguntzarekin, eta lo egiteko zazpi etxeak eta jatetxea zabalik izango ditu hemendik aurrera.

Bazkariak eta afariak emango dituzte astegun eta aste bukatetan: plater konbinatuak, ogi-tartekoak, mokadutxoak, menu bereziak... Aznalek badaki garai zailak direla alderdi ekonomikoari dagokionez, baina "lanean sinisten" du eta alboan "aparteko laguna" hartu duela dio, ama.

Azken asteotan bazterrak garbitzen eta txukuntzen jardun dute; izan ere, jatetxea bi hilabete egon da itxita. Udalarari, ostera, konponketa batzuk egiteko eskatu zioten: "Bidea eta farolak konpontzeko esan genion, kobrea lapurtu zutelako Gabon inguruan eta ez zegoelako argirik". Horiek konponduta, zabalteko gertu dute guztia Aznalek eta amak.

Soran, 8. jardunaldietan

Bestalde, Soran Debagoieneko 8. gastronomia jardunaldien barruan dago, aurrekoetan moduan. Menu bereziak antolatu dituzte prezio txukunean, eta uztaillaren 31 bitartean emango dituzte.



Ekainaren 11n egin zen udal eraketa plenoaren bozketa unea. | MAIDER ARREGI

ARAMAIO

Gaur egingo da datozen lau urteotako Udalaren jarduna zehazteko bilkura

Horrez gain, Gorrien bidea egokitzeko lanak eta hiltegi zaharreko obrak ere aztertuko dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gaur egingo da 2011-2015 agintaldiko Udalaren jarduna eta antolamendua zehaztuko dituen ezohiko osoko bilkura. 19:00etan izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Gai zerrendaren barruan, honakoak dira puntu garrantzitsuenak: hasteko, ekainaren 11ko udal eraketa pleno-ko akta onartu beharko dute. Gero, eraturako talde politikoen osaketaren eta izendatutako bozeramailen berri emango dio Ramon Ajuria alkateak udalbatzari.

Gainera, zehaztu beharreko beste gaietako bat izango da udalbatzaren bilkuren maiztasuna. Bestalde, alkatezaren beste proposamen batzuk onartu beharko

ditu osokoak: batzorde informatibo iraunkorrak osatzeko eta kide askotariko organoetako ordezkarien izendapena, alkateordeen izendapena eta informazio batzordeen arduradunak nortzuk izango diren erabakitzea. Horrez gain, udalbatzaren bilkuren maiztasuna ere finkatu beharko dute gaur.

Bi obra garrantzitsu berbagai

Bestalde, aurreko udalbatzak abiarazitako bi proiektu garrantzitsu ere izango dute berbagai. Gorrien bidea egokitzeko lanen kontratua esleitu beharko du udalbatzak eta eta hiltegi zahararen obrak aurrera egin dezaten ziurtagiria onartuko dute, bidezkoa bada.

**ANTZUOLA**

ANTZUOLAKO ESKOLA

Ikasturtea bukatu dute eskolan

Joan den eguean eman zioten bukaera 2010-2011 ikasturteari Antzuolako eskolan. Ohikoa den moduan, 6. mailako gelakoek jokoak antolatu zituzten gainerako ikasle eta irakasleendako. Aurten 6. maila egin duten neska-mutikoei Bergaran hasiko dute datorren ikasturtea, eta, agurra egiteko, bertsoak abestu zizkieten irakasleek. Herriko 13 gazte joango dira Bergarara datorren urtean, DBH egitera.



Jatetxe Gida



Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13

Eskaintza www.hotelsantuariodearantzazu.com

- 40 logela.
- 200 pertsonentzako jangela.
- Eguneko menua, itundutako menuak eta astebururako menu bereziak.
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak.
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak.
- Eta orain sagardotegi txokoa.

Egunero zabalik



Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza

- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita.



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona gutxienez).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomía 2009.



Pildain

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 11 65

Eskaintza

- Eguneko menua, karta, plater konbinatuak, eta bokatak.
- Astebukaeratan menu bereziak.
- Txerrikumea, sahieskia, bildotsa,... egur labean enkarguz.
- Eskatutako bertan jateko edo etxera eramateko.
- Jangela independientea su baxuarekin.

Astelehenetan itxita



Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79

Eskaintza

- Karta.
- Bi jangela.
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak.
- Aste bukaerako menu bereziak.
- Eguneko menuak.

Domeka gauean itxita



Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

KIROLA



Amos Kaptich-ek Amanuel Mesele (1904 dortsalarekin) gainditu zuen lasterketaren erdialdera. | JULIO CALLEJA



Lehenengo hirurak, izerditan podiumean. | LEIRE KORTABARRIA



Amos Kaptich keniarra, pozik helmugan. | J.C.

ATLETISMOA

Beroak astindutako afrikarren lasterketa azkarra Oñatin

- Ordu erdi eskasean helmugaratu ziren podiuma egin zuten hirurak
- Kilometro guztiak hiru minuturen azpitik egin zituzten

AITZIBER ARANBURUZABALA | OÑATI
Eguzkiak astindutako lasterketa izan zen zapatuan bederatzigarren aldiz jokaturako Oñatiko Korpus lasterketa; hala ere, ordu erdi eskasean helmugaratu ziren podiuma egin zuten korrikalariak. Amos Kaptich keniarra izan zen lehena (29:47:00); Eritreako Amanuel Meselek eskuratu zuen bigarren postua (30:02:00); eta Youness Ait Hadi marokarra (30:16:00) izan zen hirugarrena. Estreinatu berri den alkateak banatu zizkien lasterketaren ikur den txantxikua eta diru-zorro bana.

Zirkuitua ixten zuten hesien bi aldeetako ikusleek, askok urbotila eskuetan zutela, gogoz animatu zuten; amaieran korrikalariak goraiatu egin zuten zaleen berotasuna.

Denak, hiru minuturen azpitik
23 lasterkarik bazuten ere izena emanda, hegazkin arazoak tar-

teko, 20 bakarrik atera ziren postetxea abiapuntu zuen zirkuitura. Handik ohiko ibilbideari jarraituz –herriko plazatik gora, berriz ere plazara, beherako bidean Kale Berritik; eta Kale Zaharretik postetxera. Ibilbide hori zazpi aldiz eginda, herriko plazan zuten helmuga.

Zirkuituaren lehen hiru itzuli-tan taldean joan ziren korrikalariak; gero, apurto egin zuten erritmoa gero podiuma egin zuten lehenengo biek. Bien arteko lehia bihurtu zen gero, unean uneko ihesaldiak tarteko. Erritmo azkarreko lasterketa izan bazen ere, urrun dago oraindik 2006an Zersenay Tadesse-k egin zuen errekorra (27:54). Antolatzaileen esanetan, "betirako geratuko da errekor hori, horretara etorri zen eta lortu zuen". Hala ere, azpimarratzekoa da lasterketako kilometro guztiak hiru minuturen azpitik egin zituztela zapatuan.

Beroaren eragina nabarmendu zuten alde biek; aipatzekoa da bost korrikalarik lasterketa amaitu aurretik utzi zutela.

Hamargarrena bidean da

Atzoko lanak amaituta gustura ziren atzeko lanetan jardun zutenak; hesiaren bi aldeetako jarraera txalotzeko izan zituzten lehenengo hitzak.

Lasterketaren sortzaile, eta modu baten arima den, Jexux Arregi ere izerdi patsetan zegoen, alde batetik bestera, haren inguruan zuen lantalde mardula koordinatzen, aldi berean, kazetarien galderak aurrez aurre zein telefonoz erantzuten, korrikalarietara laguntzen...

Hamargarrenik izango den galdetuta, Arregik segituan baiezkotzea. Zapatukoak ikusita, hurrengorako ere gertu izango du laguntzeko prest herritarrek osatutako lantaldea.

YOUNESS AIT HADI | HIRUGARREN SAILKATUA

"Espero ez nuenez, gustura nago lortutako hirugarren postuarekin"

Pozik zegoen marokarra, egindako lanarekin eta baita zaleengatik jasotako harreragatik ere.

Helburua lortuta?

Bai horixe! Lasterketa probatzera etorri naiz eta podiumera igota noa.

Zer iruditu zaizkizu aurkariak?

Amos Kaptich, irabazlea, bereziki gogorra, oso maila altukoa.

Gustatu zaizu ibilbidea?

Ikargarri! Ez nuen herria ezagutzen, ezta lasterketa ere. Herri oso polita da korrikan egiteko atsegi-



Youness Ait Hadi.

na eta hare gehiago zaleen harrera. Asko eta ondo animatu dute eta asko esker-tzen da hori.

Zelan ikusi duzu barrutik lasterketa?

Guk uste baino bero handiagoa egin du, eta horrek asko eragin digu. Lasterketan

ezusteak izan dira; Mesele joan da lider, baina gero Kaptich-ek aurrea hartu dio. Izan ere, lasterketa horrelakoa da, ezin zara inoiz fidatu, gauzak aldatu egin daitezke-eta.

TRIATLOIA

EHUK brontzezko domina, Pontevedran jokaturako Espainiako Triatloi txapelketan

- ▶ EHUKo bi ordezkari debagoiendarrak dira: Mikel Mujika bergararra eta Andoni Correas oñatiarra
- ▶ Sprint modalitatean jokatu zuten triatloia; 750 metro igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrika



Lau debagoiendarrak helmugan. | ARATZ LOSADA

Pozik daude hirugarren postuarekin

EHUKo ordezkariak ilusio handiarekin joan ziren unibertsitateen arteko Espainiako txapelketara eta bete dute euren helburua: lehenengo postuetan gelditu dira. Jabier Berasategi da EHUKo hautatzailea eta berak erabaki zuen taldean, besteak beste, bi debagoiendar egotea: Bergarako Mikel Mujika eta Oñatiko Andoni Correas.

Argazkian taldekideak pozik ikus ditzakegu brontzezko dominak jantzita eta irabazitako kopa eskuartean dutela.



Domina eta koparekin. | A.L.

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
Aurreko urteko unibertsitateen arteko Espainiako Triatloi txapelketan EHUK laugarren postua eskuratu zuen. Aurten, berriz, postu bat aurreratu eta brontzezko domina jaso du.

Lau pertsonako taldea osatu zuten txapelketako sailkapenean zuten postuak; bi neska eta bi mutilak osatutakoa, eta tartean izan dira Bergarako Mikel Mujika eta Oñatiko Andoni Correas. Neskek lasterketa oso ona egin zuten eta mutilak ere oso txukun jardun ziren.

Baina horiek ez dira izan debagoieneko ordezkari bakarrak. MUK ere hartu zuen parte txapelketan; Alex Altuna arrasatearra eta Iñigo Tercero oñatiarra izan ziren ordezkariak, baina nesken ordezkariak ez zuten ezin izan zuten sailkapenerako puntuak lortu.

Hiruk debutatu egin dute

Mujikak hirugarren aldiz hartu du parte txapelketan. Correas, Altuna eta Tercerorendako, berriz, lehenengo aldia izan da aurtengoa eta oso gustura gelditu dira guztiak Pontevedran egindako lanarekin eta emaitzarekin.

SASKIBALOA

Sustrai Aloñak erabaki du EBA ligan jokatzera datorren denboraldian

Igoera lortu zuten jokalariek gehienek jarraituko dute taldean eta hiru bat fitxaketa egingo dituzte

MIREIA BIKUÑA / AMAIA TXINTXURRETA
OÑATI

Zuzendaritza batzordea aurrekontua estaltzeko diru bila dabil, irailtik aurrera EBAn jokatzeko. Saileko talde guztiek 80.000 euroko aurrekontua dute. Horren %75-80 EBako taldearendako izango da. Aurrekontu hori estaltzeko "ate asko" jo dituzte. Udalarekin ere hartu-emanetan jartzeko asmotan dabilta eta Aloña Mendiko gainerako sailek euren laguntza ere eskaini diete: "Guztiak daude laguntzeko prest eta asko eskertzen dugu".

Azpiegitura sendoa

EBA ligan jokatzeko, aurrekontu potolo bat baino askoz gehiago

izatea esan gura du. Partidueta-ko antolaketa oso bestelakoa da: estatistikak hartzeko hiru pertsona, medikua, kontrarioari eta epaileei ongietorria egingo dien ordezkaria, ambulanzia... Horiek guztiak antolatzeko talde bat osatuko dute.

Jokalariek eta entrenatzailea

Igoera lortu zuten jokalariek gehienek jarraituko dute taldean. Hiru bat fitxaketa egingo dituzte, baina oraindik ez dituzte izenak adierazi. Baieztatu dutena da, Mugarri Alkesako eta Iraurgiko jokalariek izandako Gorka Alartzia bigarren entrenatzailea izango dela. Xabi Igartuak zuzenduko du taldea EBAn.



Aloñaokoa EBA ospatzen, herritarren berotasunarekin. | GOIENA

AZOKA TXIKIA KALEAN

Uztailak
1-2

Izugarrizko beherapenak

Bedelkar-eko
merkatariak kalean



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BEHARRUNTZA
MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

SASKIBALOIA

Herriko plaza kantxa erraldoi bihurtu zuten ume, gazte eta jokalaririk helduek

- ▶ Saskibaloia kalera aterata, elkarrekin ondo pasatuz pozarren borobildu dute denboraldia
- ▶ Kiroltasuna nagusi bazen ere irabazteko grina erakutsi zuten lehiakide guztiek

AITZIBER ARANBURUZABALA | BERGARA
Saskibaloia kantxa erraldoiaren itxura hartu du asteburuan San Martin plazak. Bergarako Kirol Elkarteko Saskibaloia sailaren eskutik, Hirunako Soraluze saria jokatu dute han; aurtengoa, laugarren edizioa izan da.

Kategoria guztietako jokalaririk aurkitu ditugu aurten ere; guztira 80 talderen bueltan batutako 320 jokalaririk. Herriko ordezkariak gain, debagoiendarrak eta Euskal Herriko beste txoko batzuetakoak ere bai.

Ikusi, ikasi eta jokatu

Jokalaririk adina oinarri hartuta hiru zatitan banatu zuten asteburua.

Zapatu goizean, kadete eta jubenilek ekin zioten txapelketa; ohikoa den moduan, saski bakarrean lehiatu ziren hiruna kideko bi taldeak sei minututako muga zuen partiduko bakoitzean. Kantxaren barrukoek, eskarmen-tia bazutela erakutsi zuten jokaldi politik oparitutak. Kantxaren kanpoaldean, batzuk jokalaririk animatzen eta beste batzuk, berriz, euren txanda heldu bitartean, bereziki txikiak nagusiei begira, horien trikimailuak ikusten eta ikasten. Hiruko jaurtiketen lehia ere izan zen gero.

Arratsaldean, nagusien txanda izan zen; senior eta senior-elite mailakoena, hain zuzen ere. 10 minututako partiduak jokatzeko, jokalaririk profesionalak jardun zuten; horien artean, Caja Laboral taldeko Ander Gartzia UPV-EHUko Antton Hernandez bergararrak. Ezagun zen izen handiko jokalaririk izanda plaza jendez gainezka zegoen.

Ikuskizun lehiatua izan zen arratsaldekoa. Ezagun zen batzuek lagun-arte giroan ondo pasatzea zutela helburu eta beste batzuek, ordea, irabaztea. Horrek talde ezberdinen arteko haserreak eta epailearenganako kexak sortu zituen.

Partiduak bukatu eta sariak banatu ostean, ordura arte kirola egiteko gunea izan zen plaza, jantoki bilakatu zuten; mahaiaren bueltan elkartzeko elkarrekin afaldu eta jolasean gero, egunari amaiera polita emanaz.

Domekan, ostera, txikiak kantxaren jabe, alebin eta benjamin kategoriako debagoiendarrak osatutako 20 talde.

Gurasoen lana, ezinbestekoa

Jokalaririk, entrenatzaile, guraso... guztiek elkarrekin ikasturteari amaiera polita ematea du helburu, hitzorduak.

Jokalaririk eta entrenatzaileak gain, bertaratutakoaren artean asko ziren gurasoak; batzuk ikusle eta beste hainbat antolatzaile gilduta: kantxa montatzen jardun zuten batzuk; plazaren eskina-txoan zegoen txoznan zerbitzari lanetan beste batzuk, partiduak koordinatzen beste hainbat. Gurasoen inplikazioa ez da, baina, txapelketara mugatzen, "urte osoan zehar ezinbestekoak ditugu: partiduetako bidaletan, diru-bilketan, seme-alabak entrenamenduetara joaten animatzen...", dio Alex Gardoki, Bergarako saskibaloia koordinatzaileak.

Speaker lanetan jardun zuen Ugutz Basaurik ere gurasoen lana txalotzeaz gainera, era honetako txapelketen garrantzia azpimarratu zuen: "Egun saskibaloia bogan dago eta horren erakusle, asteburuan jokatu diren partiduen kantitate eta kalitatea batetik, eta herriko harrobietan egiten den lana bestetik: gurean ere badira lehenengo mailara salto egin dutenak ere. Horrelako hitzorduek ahalbidetzen dute gazteek eredutzat dituztenak gertutik ezagutzea eta elkarrekin ondo pasatzea. Jokatzeko jarraitzeko oso motibagarria da maila ezberdinetako jokalaririk txapelketa berean "nahastea".



Elite mailako mutilak broma gutxirekin jolasean . | JULIO CALLEJA



Taldeak balaia defendatzen. | JULIO CALLEJA



MIKEL MOÑUX ETA ASIER LOPEZ (BERGARA)

"Guri domekan egokitu zaigu jokatzeko, benjamin mailako gara-eta. Gure txanda heldu bitartean, hainbat partiduko gustura ikusi ditugu eta horietatik hainbat truko ikasi ere. Gure helburua ondo pasatzea da eta ahal izanez gero, noski, irabaztea ere bai".



JONE RODRIGUEZ ETA JONE ORUESAGASTI (URRETXU)

"Urretxuko txapelketan bigarren postua eskuratu ostean, Bergarakora etorri gara proba egitera. Kadete mailako bi neska talde bakarrik aurkeztu garen, bost partiduak jokatu ditugu eta guztiak irabazi. Hurrengo asteetan, Ordizia edo Zarautzekora joango gara".



AGUSTIN MORCILLO (BERGARA)

"Edizio guztietan parte hartu dugu, iazko emaitza hobetzea lortzea genuen helburu eta lortu dugu; semifinaletara heldu gara. Dirutxoak lortuz gero, bikain!"



Senior mailako Bergarako neskek pozik koparekin. | GOIENA



Ander Gartzia, Caja Laboralekoa.



Begarako senior mutilak merezitako saioa jasotzen, tartean, speaker lanetan jardun zuen Basauri. | GOIENA




Saskiratzeko unean. | JULIO CALLEJA



Joseba Salegi, zapatu goizeko hiruko jaurtiketen irabazlea. | J.C.



Kadete mailako Bergarako eta Urretxuko neskek finalean. | JULIO CALLEJA



UGUTX BASAURI, SPEAKER-A

"Esatari lanak egitea egokitu zait baina jokatu ere egingo dut. Maila oneko jokalariek ikusi ditut gaztetxoaren artean. Polita da txapelketam sortzen den giroa".



AIMAR GABILONDO ETA JULEN GARDOKI (BERGARA)

"Irabazten saiatuko garen arren, zaila ikusten dugu aurkari gogorak ditugu-eta. Gaurkoak (zapatukoak) nagusiagoak dira eta hobeto jokatzen dute, gustura eta pozik gaude eurei begira. Askok gustatzen zaizkigu horrelako txapelketak".

ALEX GARDOKI | SASKIBALOI KOORDINATZAILEA

"Begarako gurasoek, beste behin, bikain erantzun dute"

Asko ziren lanean zeudenak; horien lana lotzen jardun du Gardoki.

Gustura aurtengo edizioaz?

Bai. 320 jokalariek elkartzea lortu dugu eta oso maila altuko ikuskizuna eman dute gainera. Helburuak beteta, beraz.

Atzean lagun asko lanean.

Bai eta beste behin gurasoen lana gurako nuke azpimarkatu; horiek gabe ezin horrelakoak antolatuta ezta urte osoko lan egin ere. Beste behin, bikain jardun dute. Klu-



Alex Gardoki. | J.A.A.

baren hiru laurdenen ardura eurek dute: arlo ekonomikoan eta sozialean ezin-besteak dira. Seme-alabentzako ere oso ona da gurasoak proiektuko parte zuzenena izatea, **Diruz lagundu dute-nei, zer esan?**

Dirurik gabe ezin dela ezer egin. Laguntzaileen zerranda amaigabea da; eskerrik asko urte osoan zehar gurekin egon direlako eta herriko saskibaloia orain eta etorkizuna bermatzeko egindako ahaleginagatik.

ESKALADA

Andoni Azpilikuetak irabazi du Street Boulder Arrasate eskalada txapelketa

Hamazortzi parte-hartzaile egon dira aurten txapelketan; neskak bakarrik bi izan dira.

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Andoni Azpilikuetak irabazi zuen zapatuan Street Boulder Arrasate eskalada txapelketa. Guztira hamazortzi parte-hartzaile egon ziren eta antolatzaileak ekintza "oso ondo" atera zela esan dute. "Aurten bigarrenegun egin da eta gustura geratu gara; datorren urtean berriro errepikatzen asmoa daukagu".

Hamazortzi parte-hartzaileetatik bi bakarrik izan ziren neskak, gainontzekoak mutilak izan ziren. Kale bete jenderen aurrean, eskalatzaileak gogotik saiatu ziren zazpi blokeak gainditu eta erakinetara igotzen. Eta ez zen lan makala izan, izan ere bero ikaragarriak txapelketa ohi baino zailagoa jarri zuen.

Azkenean bloke bat gutxiago

Hasiera baten zortzi bloke, zortzi toki ezberdin, eskalatzea aurreikusitako zuten antolatzaileak, baina azkenean, parte-hartzaileak asko zirela eta, zazpi bloke eskalatu zituzten eskalatzaileak. "Txapelketan jende askok parte hartu du eta azkenean bloke bat kendu egin dugu", esan du Joannes Iriar txapelketako antolatzaileak.



Lehenengo proba txosnaguneko eskultura igotzea izan zen. | JULIO CALLEJA

Jendearen erantzunarekin "oso pozik" geratu direla gaineratu du. "Lagunarteko giro polita egon da txapelketa osoan eta ikuslegoa ere gustura egon da proba ikusten". Aurten, gainera, estreinako kamisetak banatu dituzte antolatzaileak.

Funtsean, txapelketa honek eskalada bultzatzea du helburu eta alde horretatik helburua bete dutela esan dute antolatzaileak. Guzti horregatik, "gauzak nola joan diren ikusita", datorren urtean berriro errepikatzen asmoa dutela iragarri dute.

SASKIBALOI

Gaurtik egubakoitzera egingo dute Ointxeren saskibaloia campusa, eta ordainketa gaur bertan izango da

L.K. | ARRASATE

Gertu dago Arrasateko Ointxe Mondragon Unibertsitateak antolatzen duen saskibaloia campusa; gaur, astelehena, hasiko da eta egubakoitzera arte iraungo du. Azken urteotan bezala, aurten ere ekaineko azkeneko astea aukeratu du Ointxek ekintza hori egiteko. Egutero Iturripe kiroldegian izango dira ekintzak, 18:00etatik 20:30era bitartean.

Parte-hartzaileek gogoan izan behar dute gaur, lehenengo eguna, bertara joaten direnean eraman behar dutela campusa ordaintzeko 35 euroak.

Campuseko kamiseta ematen dietenean ordaindu beharko dute matrikulazioa.

Sei begirale

Campusa 10 eta 13 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta dago, eta saskibaloiarekin lotutako ariketak eta jokoak bateratzen ditu.

Gorka Zurututza Ointxeko zuzendari teknikoak gidatuta, entrenatzaile ikastaroa egiten dabilen sei begiralek dinamizatuko dute campusa.

Aukera ederra dute hainbat gaztetxok uda hasiera kiroltan blai gozatzeko.

FUTBOLA

Gaur jarraituko du Ipintzako udako txapelketak

Aurrera jarraituko du gaur Bergarako Ipintzako udako futbol txapelketak. Gaurtik egutegia bitartean egutegia bi partidur jokatu dituzte herriko zaleak.

Bada, hauxe da programa: gaur, astelehena, Ezdakigu-Diego Valor (18:30) eta Exkalibur-Santana (20:00); bihar, martitzena, Langosta-Patixokoak (18:30) eta Mongitxarrrak-Juve (20:00); etzi, eguaztena, Osinola-Irama (18:30) eta Indargorri-Getokoak (20:00); eta azkenik, egutegian, hilak 30, Ezdakigu-Santana (18:30) eta Exkalibur-Diego Valor (20:00).

TXIRRINDULARITZA

Azken etapa izango dute gaur bailarakoek Gipuzkoako Itzulian

Gaur, astelehena, erabakiko da Gipuzkoako Itzulia. Zarautzen hasiko da laugarren eta azkeneko etapa, eta nahiko menditsua izango da: Meagas mendatea bi aldiz zeharkatu beharko dute, eta Garate ere gainditu beharko dute. Denerata, 92 kilometro egin beharko dituzte.

Debagoieneko Sumofic, Mugarri-Jay eta Ulma taldeko 17 txirrindulari gazte dabilta itzuli horretan. Batez ere Sumofic-eko Mikel Aristi nabarmendu da orain arte. Bestalde, Mugarri-Jay taldeko Iker Eskibel aldapan gora ondo ibiltzen da.

IGERIKETA

200 igerilaritik gora eta emaitza onak Gipuzkoako txapelketan

Jon Muxika bergararra Espainiako txapelketan izango da uztailen

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Debagoieneko talde bakarra primeran ibili zen zapatuan eta domekan jokatu zen igeriketa txapelketan, Bergarako igerilekuan. Aloña Mendi taldean joan


ziren Oñatiko igerilariak eta bergar bat ere, eta leku onean utzi zuten bailara. Hala, Jon Muxika bergararra Espainiako txapelketara joateko behar zituen denbora minimoak lortu zituen, eta

uztailen Mallorkara joango da. 50, 100 eta 200 metroak bizkar estilora egingo ditu.

Gipuzkoako 14 talde

Antolatzaileak, Bergarako Igeri Elkartekoak, oso pozik daude zelan joan den guztia: Gipuzkoa osoko 214 igerilari batu ziren, 14 ekipotan banatuta, lau kategoriatan: umeak, juniorrak, seniorrak eta promesak. Horietatik 24 debagoiendarrak ziren, 16 neska eta zortzi mutil, kategoriaz guztiak. "Dena oso ondo irten da eta emaitza onak lortu dituzte igerilariok", diote antolatzaileak.

Gipuzkoako honako taldeak etorri ziren: Donostiatik bi talde, Fortuna eta Easo; Zarautz, Ordizia, Hernani, Azkoitia, Azpeitia, Eibar, Irun eta Hondarribia (Bidasoa), Bardulia, Oarsoaldea, Toloaldea eta Buruntzaldea.



Lurraldeko igerilari gazte onak etorri ziren Bergarara. | JULIO CALLEJA



PILOTA

JULIO CALLEJA

Irabazi ez arren, bikain lrujo

Sorpresa izan zen atzoko pilota partidua nagusian, Uarkapen, izan ere, Martinez de Irujo txapelkunak eta bere bikotekide Zabaletak galdu egin zuten Aritz Lasa eta Zabaletaren aurka. 22 eta 17 izan zen azken emaitza. Aspaldian bezala, eskuzko markagailua erabili zuten, markagailu elektrikoa hondatu egin zelako. Partidu bukaeran, hainbat zale txiki txapelketa agurtzera joan ziren.

Markel Uriarte | Bizikleta jaitsierak egiten ditu

"Enduro probetan oinez igotzen da eta gero oso azkar jaisten da"

- ▶ Euskadiko txapelketan hirugarren egin du Uriartek
- ▶ Aretxabaletan I. enduro proba egingo dute domekan

ARANTZAZU EZKIBEL | ARETXABALETAN
Datozen egunotan buru-belarri Urkuluko zirkuitua prestatzen ibili beharko duela esan digu Markel Uriartek. Euskadiko txapelketari dagokion Legutioko V. jaitsieran hirugarren egin zuen aretxabaletarrak. Uztailaren 3an II. mendi bizikleta eta I. enduro proba egingo dute Aretxabaletan. Hori antolatzen dihardu.

Zorionak, Euskadiko txapelketan hirugarren egin duzu!

Bai, eskerrik asko! Ondo joan zen dena Legution eta pozik nago lortutako emaitzarekin.

Nolako lasterketa izan zen?

Ohikoena da bi jaitsiera egitea. Goiz osoan entrenamenduak egiten ibili ginen eta arratsaldean lasterketak egin genituen. Bi jaitsiera egiten ditugu, eta bietako denbora onena hartzen dute kontuan sailkapena egiteko.

Adibidez, lehenengo jaitsieran denbora onena egin nuen eta denbora horrekin hirugarren sailkatu nintzen.

Espero zenuen Euskadiko txapelketan hirugarren postua lortzea?

Ez, ez nuen espero; izan ere, oso jende onak parte hartu zuen lasterketan. Inguruko jende onena joan zen txapelketara.

Hala ere, Legutioko zirkuitua ondo ezagutzen zenuen.

Bai, askotan joaten naiz hara entrenatzera eta zirkuitu guztia ezagutzen nuen.

23 urtez azpikoetan hirugarren egin nuen eta maila guztiak kontuan hartuta bosgarren.

Ondo ezagutzen zenituen aurkari izango zenituenak?

Badira urte batzuk mundu honetan nabilela eta guztiok elkar ezagutzen dugu. Banekien nortzuk izango ziren aurkariak, eta baita nortzuk ibiliko ziren ondo ere.

Nola sartu zinen bizikletaren munduan?

Lehenengo, trialsinarekin hasi nintzen; gero, mendi bizikletarekin jarraitu nuen; eta azkeneko hiru urteetan, jaitsierak egiten nabil. Hala ere, mendiko bizikleta egiten dut noiz edo noiz.

Jaitsierak ez dira oso ezagunak gurean. Nola hasi zinen jaitsierak egiten?

Betidanik gustatu izan zait. Urte asko daramatzat bizikletaren munduan eta jaitea igotzea baino gehiago gustatu izan zait. Beti oso azkar egin izan ditut jaitsierak.

Dorletako Ama-Lizarralde taldeko zenbat lagun joan zineten Legutio-

ko probara joan den aste bukarran?

Taldekode asko Madrilerara joan ziren mendi bizikleta lasterketa bat egitera. Hala, bi besterik ez ginen joan Legutioko lasterketa egitera.

Debagoien mailan zenbat lagun ibiltzen zarete jaitsierak egiten?

Taldeko lau bat lagun ibiltzen gara jaitsierak egiten; Bergarako beste bi, Antzuolan beste bat... Elgetako lagunak ere badaude; adibidez, Txomin de Vega. Andorrako lasterketan hanka apurtu zuen eta ezin izan zuen Legution parte hartu.

Zein da gehien gustatzen zaizun zirkuitua?

Urkuluko asko gustatzen zait. Orain dela hiru bat urte egin genuen, lagun batek egin zuen, eta asko ibiltzen naiz zirkuitu horretan.

Datorren astean, lehenengo enduro proba egingo duzue Urkulun.

Bai, enduroko lehenengo proba izango da, eta, horrez gain, bigarren mendi bizikleta proba ere egingo dugu. Uztailaren 3an izango da, domeka.

Nolako zirkuitua antolatu duzue?

Aretxabaletako plazan hasiko dugu lasterketa; Mendiolatik Peñakulora igoko gara eta handik Kurtzebarrira. Gero, ibilbide bat Areantzara jaitsiko da eta beste ibilbidea Orkatzategi ingurura joango da. Bi ibilbideak nahiko paraleloak izango dira.

Mendi bizikletaren lasterketa luzeagoa izango da eta endurokoak, ostera, jaitsiera zailagoak izango ditu.

Enduroko lasterketak nolakoak izaten dira?

Mendi bizikleta zirkuitu baten antzerakoa izaten da, baina igorak arinagoak dira eta jaitsierak, ostera, askoz ere gogorragoak.

Bizikletak ere ezberdinak dira. Badaude batzuk rally deitzen direnak, mendi bizikletan ibiltzekoak, eta horiek atzealdean ez dute esekidurarik eta aurrean oso ibiltarte txikia dute. Mendi bizikletan ibiltzekoak bi esekidura izaten dute eta ibiltarte luzeagoa. Endurokoetan oinez igo behar izaten da eta gero bizikletan jaitsi. Jaitsieretako bizikletak ondo jaisteko eginda daude, eta igotzeko ere balio dute.

Jaitsiera zirkuituak naturalak izaten dira ala egindakoak?

Normalean, egindako zirkuituak izaten dira. Peraltea, saltoak... izaten dituzte. Ez dira ibilbide normalak, horretarako egindakoak dira.

Enduro proba bat ikustera doanak zer ikusiko du?

Jaitea oso gustuko dutenak ibiltzen dira enduro probetan; igo, ostera, bizikleta eskuetan dutela egiten dute. Suabe igo, gero azkar jaisteko.

Urkuluko zirkuituan hiru jaitsiera daude, eta hirurak gertatutakoak dira. Jaitsiera oso politak dira.

"Gustatzen zaizkit harri gutxi duten zirkuituak, baina denetik dutenak"

"Uste dugu mendi bizikleta ibilaldira jende askotxo etorriko dela"



Markel Uriarte, Aretxabaletan. | ARANTZAZU EZKIBEL

Jaitsiera zirkuitu on batek zer behar du, zure ustez?

Denetik pixka bat. Niri gustatzen zaizkit harri gutxi duten zirkuituak, baina denetik dutenak: peraltea, saltoak... dituztenak. Gune azkarrak dituztenak, gune lasaia... denetik.

Daukazuen mailara iristeko, jausi ere askotan jausiko zineten. Izan duzu anekdotarik?

Jausi, egia esan, egunero jausten gara. Baina nik oraindik ez dut istripu handirik izan jaitsierak egiterakoan.

Gertatzen dena da oso ondo babestuta ibiltzen garela: kaskoa,

bizkarra babestekoa, eskularruak, belaunetakoak... denetarik izaten dugu, eta, ondorioz ez da minik hartzen. Bestalde, hemen inguruko zirkuituetan ez da harri askorik egoten; hortaz, lurraren kontra hartutako kolpeetan ez da min handirik hartzen.

Aurrera begira zeintzuk dira zure asmoak?

Aurtengo bi helburu nituen: Andorrako lasterketa eta Legution jokotutako Euskadiko lasterketa. Laster Euskadiko Openeko lasterketak izango dira, eta horietan ere parte hartuko dut.

Mendi lasterketa bigarrena izango da. Nolako erantzuna izan zuen lehenengoak?

Iaz, uztail hasieran egin genuen, eta ikusita nolako eguraldi txarra egin zuen pentsatu genuen ez zela inor etorriko. Hala ere, jendea animatu egin zen. Guk uste dugu aurten ere etorriko dela jendea.

Nola entrenatzen zarete?

Urkulun eta Legution ibiltzen gara entrenatzen. Taldean ibiltzen gara, baina ez daukagu entrenaizale finkorik.

Noiz arte jarraituko duzu jaitsierak egiten?

Oraindik gaztea naiz; hortaz, jarraitzeko asmoa daukat.



Legutioko podiuma: Markel Uriarte, Iraitz Etxebarria eta Eric Portillo. | GOIENA

HEZKIKETA

Genitalak atal gatazkatsuak dira; traturik txarrena nesken aluak jasotzen du

Zer egin txikitatik aluak eta zakilak ere trataera duina izan dezaten?

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Txikitatik ikasten dugu gorputz atal guztiak ezberdinak direla", adierazten du Larraitz Arando sexologoak *Guraso.com* atarirako egindako azken artikuluan. "Batzuen inguruan gauza politik lasai esan genezakeen arren, beste batzuk existituko ez balira aritu beharko garela (...). Atal gatazkatsuenak genitalak izan ohi dira". Eta kasu praktiko bat jartzen du adibide gisa; lau urteko alabak aluan kili-kili egiteko eskatu dio amari. Amak galdetzen du nola jokatu beharko lukeen.



Neskak hondartzan. | ALAIN BACHELLIER

Prebentzio neurriak

Ez dago denontzat balio dezakeen erantzun egokirik edo errezeta magikorik. "Teoriak teoria, etxe bakoitzean balore eta hezkuntza eredu ezberdinak ditugu", dio sexologoak. Baina gaineratzen du abusu sexualen inguruan sortutako gehiegizko alarmek gura-

so askorengan eragina izan dutela. "Azaldu zergatik egoten zaren deseroso, zuri zer erakutsi dizuten, zer nahi duzun berarentzat... Bere aluarekin zein harreman izatea gustatuko litzaizukeen, zergatik kostatzen zaizun egitea...". Sexologoaren esanetan gero eta

gehiago dira genitalek umetatik trataera duin bat izan dezaten saiakeran dabilzan gurasoak. "Dena den, onartu beharra dago askotan gure pentsamendu eta gure gorputzaren erreakzioak ez datozela bat. Hori onartzea osasuntsua da".

Haurrek eta gazteek ia ez dute momentu libreaz gozatzeko astirik izaten

Helduon eginbeharra haurren trebetasunak aztertzea, defendatzea eta motibatzea da

L.Z. | ARRASATE

Mirari Arandok proposatzen digu hausnarketarako bidea *Guraso.com* atarian. Ikasketak, eskolaz kanpoko ekintzak... Guztia planifikatuta izatera ohitu garela eta umeak ere horretara ohitu nahi ditugula diosku. "Pentsatzeko, aukeratzeko, gauza ezberdinak probatzeko, inprobisatzeko, jolasteko, kalean ibiltzeko eta abarrerako aukerak lapurtzen ari garela iruditzen zait", diosku. Eta autonomia eta sormena moduko gaitasunak oztokatzen ari garela dio.

Aisialdiko eskaintzen aukeraketaren inguruan eta umearen trebetasunak zein gustuak antzemateko eta aztertze-

ko beharraz ohartarazi nahi ditu gurasoak. Hausnarketarako beste bidea ere luzatzen die semea edo alaba ezertan trebea ez dela esaten duten gurasoei; "Bizitza honetan gauzak ongi bakarrik egin daitezke, ala?"

Trebetasunak antzeman

"Jendeak esango duenaren beldurrez, gure seme-alabak denean hoberenak izatea nahi dugu. Askotan, gainera, ez dugu umeek egiten dutena erreparatzeko astirik izaten. Ez dakigu benetan zertan diren trebeak, ezta zer duten gustuko ere", dio Mirari Arandok bere artikuluan. Eta bi film labur gomendatzen ditu: *15 días de Agosto* eta *El sirenito*.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: guraso.com



guraso.com

ADITUAREN ESANETAN

Dementzia kasuetan nola hidratatu

Txomin Heriz

Arizmendiko irakaslea



Zahartzaroan dementzia motaren bat pairatzen dutenekin bi gauza izan behar ditugu kontuan hidratazioaren ikuspuntutik: alde batetik, pertsona helduek, dementzia gaixotasunen bat izan edo ez, egarriaren muga handituta daukatela, eta bestetik ezin dutela ondo komunikatu. Beraz, egarri-sentsazioa agertzen denarako deshidratazio-puntu bat egon badago, eta nekez adieraziko digute euren egonezina.

Hidratazio egoki baterako

Irizpide orokor bat erabil dezakegu; eguneko bi litro ur edo hamar bat edalontzi edan behar ditu gaixoak. Bero sasoiaren edo galerak areagotzen direnean, gehiago eman behar zaio. Kontuan hartu, bestealde, gaixotasun batzuetan — oso gutxitan — likido larregi edatea txarra dela; adibidez, bihotzeko edo giltzurrunetako gutxiegitasun-

nean. Kasu horietan kontsultatzea komeni da. Ura ez ezik zukuak, esnea —ahal dela gaingabetua—, alkoholik gabeko garagardoa, saldak... edan daitezke. Aldiz, saihestu egin behar dira azukredun freskagarriak, edari alkoholikoak, gatz kantitate handiko edariak... Aldiz, infusioak erabil daitezke —te berdea, kamamila, menta-txortaloa—. Te beltza eta kafea ere bai, baina ez dira gomendagarriak kantitate handietan.

Dieta aldaketak bero-egoerak irauten duen bitartean edo gehiegizko izerdia botatzen den kasuetan egin behar badira gehitu frutak, barazkiak, elikagai likidoak edo erdi likidoak eta jaitsi proteinak zein gantz eta azukre kantitate handiak dituzten elikagaiak. Eta kontuz aurretik dietaren bat bazegoen, horrelakoetan kontsultatu.

Ez ahaztu gernu-galerak neurtea eta baita aparteko galerak ere; izerdia, mugimenduak, diuretikoak... Horrela jakingo dugu gaixoak zenbat litro ur galtzen

dituen eta hori konpentsatzeko zenbat likido eman behar diogun.

Irudimena erabili

Pertsona batzuei, agian, gogorra egingo zaie hainbeste ur edateak. Hori gaintzeko tartekatu ura beste edari batzuekin.

Bero denean hobe da edari freskoak edo hotzak (8-10 gradu) erabiltzea; hidratazioa azkarragoa da. Otorduak prestatzeko, berriz, irudimena erabili. Esaterako, asmatu zure gazpatxo propioa edo porrusalda egiterakoan normalean erabiltzen duzun porru kopurua handitu eta patata kopurua gutxitu. Elikagaiek ur-kantitate ezberdina dute; komeni da kontuan hartzea; ondoko taulan xehetasun gehiago.

Eta azken gomendio bat; gaixoak inkontinentzia baldin badu, eta bestela ere, orokorrean ez da ona izaten orokorrean, ohera joan baino lehenagoko orduetan likidoak murriztea.



Frutak eta barazkiak Arrasateko denda batean. | EDURNE BALZATEGI

Ur kantitatea elikagaien konposizioan

Ur kantitate handiko elikagaiak dira zerbak (%97), pepinoa (%96), letxuga (%95), tomate gordina (%94), esparragoak (%94), meloia (%93), txanpinoia (%92), esnea (%89), azenarioa (%88), laranja (%87) eta jogurta (%86). Beste elikagai hauek, berriz, ur kantitate txikiagokoak dira: patata (%78), legatza (%76), arroz egosia (%65), mihi-arraina (%64), arrautza frijitua (%64), behikia (%60), oilasko errea (%40), ogi zuria (%35), Mantxako gazta (%30), kakahuetea (%8) eta oliba-olioa (%0,1).

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko: arizmendipro.eu



2.0 PROFESIONALAK

KULTURA



Bergarako udal pilotalekua bete egin zen orkestra sinfonikoaren kontzertua ikusteko. | JULIO CALLEJA

Sentimenduz beteriko 25 urte, gau bakar batean

- ▶ Orkestraren 25. urteurreneko ospakizunak 600 pertsona batu zituen
- ▶ Emozioz eta sentimenduz beteriko kontzertu hunkigarria izan zen

JAIONE CARPINTERO | BERGARA

Beroz-eguraldi eta jende aldetik-, izerdiz eta emozioz beteriko gaua izan zen zapatukoa Bergarako udal pilotalekuan, Orkestra Sinfonikoaren 25. urteurreneko kontzertuan.

Hasiera emateko, aurkezleak lehenengo urteetara begira jarri zituen ikusleak, musika-joleei galderak eginez eta hasierako urteetako anekdota kuriosoak kontatuz.

A. Morrisen *Feelings* abestia izan zen izotza apurtu zuena. Abesti honek historia handia darama atzetik, Orkestrak jendaurrean jo zuen lehen partitura izan baitzen.

Orkestra sortu zenetik, 1986. urtetik, 25 urte igaro dira, eta Euskal Herriko Orkestra Sinfoniko ez profesional onenen artean kokatzen da.

Kontzertu honetan, Orkestrak aldeaz aurretik jota zituen obra

klasikoak izan ziren protagonistak. Horrekin batera, 25 urteetako ibilbidean, oraindik bertan jarraitzen duten 13 musika-joleei eskerrak eman zizkieten, beraien artean zuzendaria den Alfredo Gonzalez Chirlaqueri.

Hasierako urteetako oroitzapenak gogoraraztean, musika-joleak emozioz beterik, malkoak erortzen zitzaizkien, baita ikusle askori ere. Momentu hunkigarri asko egon ziren ekitaldi guztian zehar.

Benito Lertxundiri omenaldia ere egin nahi izan zioten, duela urte batzuk beraiekin izan baitzen kontzertu batean. Bere abesti bat jo zuten, *Udazken koloretan*, Orkestrako musikagileek musika ipiniz, eta Aitzol Mujika abeslariak, berriz, ahotsa.

Koruaren laguntza

Gaueko 23:15 inguru, kontzertuaren bigarren zatiari eman zioten hasiera, M. Schönberg-en *Mise-*

rablen abestiarekin. Bigarren zati honetan, Bergarako Orfeoia- ren eta Aritzeta abesbatzaren laguntza izan zuten orkestrako musika-joleek.

Oroigarri eta lore sorta ugari

Kontzertua amaitzean zegoela, oroigarri, sari eta loreak banatzeari ekin zioten. Lore sorta ugari banatu zituzten: Ainara Ortega eta Aitzol Mujika bakarlariei, Aitor Biain abeslari eta zuzendariari, Orfeoiko eta Aritzeta abesbatzako zuzendariari, musika eskolako umeen koruko zuzendariari...

Amaitu aurretik, 25 urte haue- tan orkestraren zuzendaritzapean egon den Alfredo jaunari oparia egin zioten musika-joleek. Orkestrako kide guztiak, zutik jarrita, beraiek sortutako abesti bat abestu zioten, eta haren bidez zuzendariari eskerrak eta urte askotarako esan zioten. Emozioz beteriko momentu honekin agurtu zituzten ikusleak, 25 urte barru bertan berriz ikusiko direlakoan, ongi ibiltzeko.



MARI CARMEN LARRAÑAGA

"Asko gustatu zait kontzertua. Nire ustez, ezin zen hobeto irten, borobil irten da guztia. Erabat emozionatuta egon naiz emanaldi guztian zehar, eta negar-malkoak ere irten zaizkit".



ALVARO GALLASTEGI

"Oso polita izan da kontzertua. Ni musika eskolako komision egondakoa naiz, beraz, oso pozik. Niretzat ere 25 urte pasa dira. Uste dut inguruko herririk musikagileena dela Bergara".



AUREA IÑURRITEGI

"Oso polita izan da kontzertua. *Avatar* asko gustatu zitzaidan lehen aldiz jo zutenean, eta gaur berriz entzutea asko gustatu zait. Ahal dudan guztietan etortzen naiz honelako kontzertuetara".



ANTXONI ZUBILLAGA

"Emozioz beteriko kontzertua izan da. Ezin dut zerbait nabarmendu, dena oso ondo egon da-eta. Aurkezlea eta zuzendaria ere oso ondo egon dira. Ez dut uste beste herrialdeetan horrenbeste afizio musikalik egongo denik".



ZIGOR RUIZ DE EGINO

"Asko gustatu zait. Egia esan, denera apur bat luze egin da, baina polita izan da, eta 25 urte beteta, egin beharreko zerbait izan da. *The Mission* obra izan da gehien gustatu zaidana, baina motza geratu da".



Manuel Romano, Loyola Garmendia, Eduardo Errondosoro eta Kike Otxoa ikuskizunaren momentu batean. | JULIO CALLEJA

KRONIKA

Golden Apple Quartet, "zoragarri"

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE
"Gabon, Arrasate" hitzekin hasi zuen emanaldia Donostiako laukoteak. *Los Golden en serio*, euren zazpigarren ikuskizunarekin

saioari seritasun pixka bat jarri nahian etorri ziren, baina ikus-entzuleen algarek argi utzi zuten oraindik musika eta umorea primeran uztartzen dituztela eta

nahita ere ezingo luketela egin saio serioa.

Ikuskizuna
Abesti serio batekin hasi nahi

FITXA

MUSIKA

EDUARDO ERRONDOSORO, LOYOLA GARMENDIA, KIKE OTXOA ETA MANUEL ROMANO

Ikuskizuna: 'Los Golden en serio'.

Non: Monterron parkean.

Eguna: Egubakoitza, hilak 24.

Iraupena: Ordu eta erdi.

izan zuen Kike Otxoa partaideak baina ezustekoa izan zuen agertokira hiru euli handi igo zirenean eta kantuan hasi zirenean.

Horren ostean bai, formal hasi ziren, hau zioen kantua: "luces, música y acción, suena una canción, empieza la función". Eta ordu eta erdiko ikuskizun paregabea eskaini zuten.

Hitz jokoeekin jolastu zuten eta askotariko estiloak jorratzen ere ausartu ziren: flamenkoa, opera, gargarak, zirkua eta aho malabarismoak, esaterako.

Euren ikuskizunarekin historiara pasatu nahian eta Arrasaten zeudela aprobetxatuta a-rra-sa-tzea nahi zutela ikusita, hainbat saiakera egin zituzten. Filmen soinu-bandak ekarri zizkiguten gogora; adibidez, *Misión imposible* eta *James Bond*-enak. Tom Jones-en *It's not unusual* eta Louis Armstrong-en *Wonderful world* ere interpretatu zituzten. Baita *Lau teilatu* eta *Oi Pello, Pello* ere.

Bukatzeko, The Beatles-eko taldekideak txotxongilo bezala ikusi genituen, betiere "Golden" estiloa galdu barik. Herritarrek zutik bukatu zuten laukoteari txalo zaparrada ematen eta zorian oihuak egiten.


Ikus-entzuleak oso gustura
Monterron txiki gelditu zen laukote bokalaren emanaldirako. Horrez gain, saioaren bukaeran jendeari galdetuta zer iruditu zitzaizen "zoragarri" izan zen gehien aipatutako hitza.

Karmele Igartua poetaren azken liburua opari. Nahi?

► Lor ezazu, debalde*, telefono honetara deituta: **943 25 05 05**

* Deitzen dutenen artean zozketatuko da. Parte hartzeko azken eguna: uztailak 1

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | www.goienakluba.com | Urteko kuota: 48 €.

Gaberok eta Ganbarak ikuslegoa "aho zabalik" utzi dute Zabalotegin

Emanaldia "ikusgarria" izan zela esateaz gain, beste behin ere horrelako zer edo zer errepikatzeko gogoz daudela esan du zuzendariak

ASIER ALKORTA | BERGARA

Oñatiko Ganbara Txikik eta Bergarako Gaberok puntako ikuski-zuna eskaini zuten egubakoitz gauean, Zabalotegin. Aretoa bete-bete egin zela esan du Aitor Biain bi taldeen zuzendariak. "Jendea oso gustura geratu zen eta kontzertua berezia izan zela esan zuten".

Ohiko emanaldietatik ihes egin eta Ganbarak eta Gaberok "bestelako ikuskizuna" eskaini zuten egubakoitzean. "Abesti ezagunen bertsoak egin genituen eta jendeari oso polita iruditu zitzaion; gustura egon ziren". Ordu bat inguru iraun zuen emanaldiak eta ikuslegoa pozik gertatzeaz gain, abeslariak eurak ere "oso gustura" geratu zirela gaineratu du Biainek.

Orokorrean, emanaldia nola irten zen kontuan edukita, emaitzarekin "pozik" daudela argitu du zuzendariak. "Jende asko etorri zen ikustera eta aho zabalik geratu ziren, hori guretzat pozgarria da".

Prestaketa lanak

Meritu handiarekin, emanaldia-aren aurretik egindako prestaketak ez zirela oso gogorak izan esan du Biainek. "Ez da lan zaila izan. Azken bi hilabetetan landu dugu emanaldia".

Bi musika taldeentzat itxura horretako emanaldi bat eskaintzen duten lehen aldia izan da eta ikusita erantzuna zelakoa izan den, beste behin egitea ez dute baztertzuten. "Politza izan da eta kalera ere atera daiteke. Gure

aldetik, prest gaude beste behin ere horrelako zer edo zer egiteko. Gainera, horrelako emanaldi batek beste herri baten egiteko aukera ere ematen du".

Egubakoitzeko emanaldia amaituaz batera, denak, abeslariak, musikariak eta zuzendaria, berriro errepikatzeko gogoz geratu zirela esan dute. "Dena hain ondo joan zen, berriro errepikatzeko gogoz gaudela".

Orain, ekaina amaitzean, musikariak oporrak hartuko badituzte ere, ikasturte berrian ideia horri eusten jarraituko diotela esan du Biainek.



Zabalotegi aretoa bete-bete egin zuten bertoko bi taldeek. | JULIO CALLEJA

EKAINEKO SARIEN IRABAZLEAK

Zinerako sarrerak



Miren Anduaga Kortabarria

(Antzuola)

Maite Beitia Abarrategi

(Aramaio)

Esteban Barandiaran Fdez. de Jauregi

(Arrasate)

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

SKUN-FUNKeko materiala

Antoni Uribarren Egidazu Arrasate

DVDa

Angel Bergaretxe Abarrategi Arrasate

LIBURU SORTA UMEENTZAT

Miren Lazkano Balzategi Bergara

UMEENTZAKO JOKOAK

Marga Zabaleta Lamariano Arrasate

ZORIONAK, GUZTIOI !

Etxea apaintzeko eskulanak ikusgai Antzuolako Oларanen

Ikasturte honetan eskulangintza ikastaroan ibili diren antzuolarren lanak daude ikusgai

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Urtero ikasturte bukaeran egiten duten legez, eskulan ikastaroan aritu direnen lanak egon dira ikusgai joan den aste bukaeran Oларanen. Koadroak, botella margotuak, kaxak, ispiluak, esekitokiak, lanparak, loreontziak, eurtako-ontziak, argazkiendako markoak, fruta-ontziak, Gabonetako jaiotzerako ... ikus daitezke bertan, teknika eta kolore ezberdinak erabilita egindako eskulanak.

Datorren aste bukaeran, berriz

Datorren aste bukaeran ere, uztailearen 2an eta 3an, eskulanetako lanak ikusteko aukera egongo da Oларanen. Hauxe izango da ordu-tegia: 18:30etik 20:30era.



Txikiaren logela apaintzeko proposak. | USOA AGIRRE



Zuri-beltzeko eskulan asko ikus daitezke. | USOA AGIRRE

Aroztegin erakusketa du Emilia Nogales elgoibartarrak

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Uztailaren 17ra bitartean, Emilia Nogales elgoibartarraren *Beraientzat* izeneko margo erakusketa dago Bergarako Barrenkaleko Aroztegi aretoan. Joan den egubakoitzean inauguratu zuten. Bisi-ta ordutegia hauxe da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00 etara.

Modatik margogintzara

Emilia Nogales 1966an jaio zen. Moda-diseinua eta patroigintza industrialia ikasi zituen Bartzelonan eta, gero, Bilbon hasi zen lanean. Jantzi-diseinuekin zenbait sari irabazi zituen. "Bizipen horren ondoren, margotzeari ekin nion, horretarako zaletasun eta grina handia baitut", Nogalesen hitzetan. Akwarela eta olio probatu ondoren, akrilikoaren teknikarekin hasi zen, eta gaur egun ere horixe erabiltzen du bere margolanetan.

Lehenengo aldiz 2004an erakutsi zituen bere lanak, Elgoibarren, eta arrakasta handia izan zuen. 2006an bigarren erakusketa egin zuen, eta, hango erantzuna ikusita, lokal bat irekitzea erabaki zuen estudio gisa erabiltzeko. Honakoa Debagoienean egiten duen lehenengo erakusketa da.



Viejo tronco lana. | EMILIA NOGALES

Egañak eta Lipusek 'Erregea eta bufoia' ikuskizuna egingo dute

Andoni Egañak eta Ander Lipusek *Erregea eta bufoia* bertso-antzerki emanaldia egingo dute uztailearen 1ean, egubakoitza, Oñatiko Santa Ana antzokian, 22:30ean, Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta. Unai Elizasu izango da gai-jartzailea. Bertsolaritza eta antzezpena nor baino nor gehiago ibiliko dira.

Gremioen gida



Jatetxeen gida



NEGOZIOA BADAUKAZU, BAINA INORK EZ BADAKI?

Eman ezagutzera zure negozioa Debagoieneko gidetan.

Osasun zerbitzuen gida



Profesional liberalen gida



Iragarkia jartzeko, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**TXUS
KRUZETA**
BITXIGILEA

GURE ARTISTAK



Txus Kruzeta bitxigilea, etxeko tailerlean bitxiak egiten. | TXUS KRUZETA

"Bitxi bat ez da moda kontua soilik, eskultura txiki bat ere izan daiteke"

- ▶ Zilarrezko belarrakoak, paparrerako orratzak eta eraztunak egiten ditu
- ▶ Hilaren 29an hasiko den bitxigintza ikastaroa eskainiko du arrasatearrak

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Txus Kruzetak 25 urte inguru daramatza bitxigintzan. Artisauaren ogibidea gertutik ezagutzen lagundu digu Kruzetak:

Bitxirik badaramazu?

Eraztunak betidanik gustatu izan zaizkit; beti eramaten dut bateren bat. Baina ez da edozelako eraztuna. Orain dela gutxi etxetxo bat konpondu dut eta nire etxearen esfortzu eta irudi batzuk nire eraztunean urtu ditut, eta nire atzamarrean daramat.

Artelanak ere badira.

Bitxiak ez dira moda kontua soilik; eskultura txiki bat izan daiteke, esanahi handikoa. Ez duzu atzamarra bakarrik apaintzen. Eraztun bati helduta zaude; hori da niretzako bitxigintza.

Enkargu bereziak jasotzen dituzu?

Askorik ez, baina orain dela gutxi Goierriko bi mutilek harribitxi berezi batzuk ekarri dizkidate eta neurri berezi batekin egin diet bitxia. Orain, L formako eraztun

bat egiten ari naiz, neska batek opari berezia egin nahi dio amari-eta; haren izena L-rekin hasten delako eskatu dit forma horretako eraztuna egiteko. Horrelako gauzak dira politak. Apaingarri bat baino gehiago da. Bitxigintzan bada beste zentzu bat, forma bat, irudi bat...

25 urte inguru bitxigintzan. Lan egiteko era aldatu duzu?

Egia esan, teknologia berriek erraztu eta lagundu egin dute. Adibidez, azoketara joateko, lehen

telefonoz edo faxez egiten zen; orain, e-postaz. Lan egiteko eran gutxiago, nire lana nahiko artesanala da eta modua betikoa, nahiz eta orain makina berritzaileagoak egon merkatuan.

Azoketan saltzeko eta erosteko modua aldatu egin da?

Azoketan harremana betiko modukoa da, jendeak bitxiak probatzen ditu, batzuetan erosi... harremana oso antzerakoa da. Nik Interneten ez dut saltzen; beraz, ez dakit nola funtzionatzen duen.

Ze bitxi dira zure lanaren ikur?

Belarrakoak dira nire ikur. Dena den, eraztunak eta paparrerako orratzak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Izan ere, ez daukate zintzilikariorik eta pieza osorik ikusten da, soka edo kakorik gabe. Egindako pieza ikusten da, osorik.

Krisiaren eraginik sumatu duzu?

Krisia egon badago, baina azoketara joaten garenok barneratuta daukagu azoka guztiak ez direla berdinak. Okerrena da erakundeek krisia aitzakia moduan erabiltzen dutela eta aurrekontuak murrizten dituztela. Ondorioz, gauzak antolatzeari uzten diote aitzakia horrekin. Krisia erakundeen jarraera bada; beste gauza bat da jendeak daukan erosteko ahalmena. Baina krisiak sorkuntza bultzatzen laguntzen du... gehiago sortzen da krisi garaian.

Gazte bulegoak antolatuta, ikastaroa eskainiko duzu.

Artisautza, ogibidea transmititzea da helburua. Hilaren 29an hasiko da eta lau saio izango ditugu.

Zilarren moduko material zuriak erabiliko ditugu: alpaka zuria, eztainua, metal zuriak... Txapak moztuko ditugu, marketeriaren antzera; forma ezberdinak sortuko ditugu, izarrak nagusiki. Hasi-eran eztaunaz soldatuko dugu eta gero zilarrezkoak izango diren kakoak ere jarriko dizkiegu. Belarrakoak, lepokoak, eskumuturrekoak... egingo ditugu. Interesa duen edonorendako da ikastaroa eta ez da aparteko esperientziarik behar. Interesateuek gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net helbidera mezua bidal dezakete oraindik.

"Bitxia apaingarri bat baino gehiago da, zentzua da"

"Krisiak sorkuntza bultzatzen laguntzen du"

"Teknologia berriek erraztu eta lagundu egin dute"

'eus' domeinua eskatuko dute datorren urtean

ICANN erakundeak irizpideak aldatu eta domeinu izen berriak baimenduko ditu datorren urtean

JON BEREZIBAR | ARRASATE

ICANN datorren urtean lehen mailako domeinu berriak onartzen hasiko dela iragarri bezain laster PuntuEus elkarteak esan du .eus domeinua eskatuko duela euskal komunitatearentzat. "Elkartea jaio zen egunetik" egon dira "albeste honen zain". Lehen mailako domeinu mota gehiago baimenduko ditu ICANN erakundeak datorren urtean. Hala, hiri edota marka komertzialek ere domeinua osatu ahaliko dute, esate baterako. Honekin, Interneteko helbideak gehiago sakabanatuko direla espero da eta herrialdeek orain arte zeukaten pisua, enpresa izenen mesedetan, murriztu.

ICANNen iragarpena

Peter Dengate Thrush ICANNeko Zuzendaritza Mahaiko lehendakariak esandakoekin bat egiten dute PuntuEus elkartekoek, "edozein hizkuntza eta idazkerako lehen mailako domeinu berriak eskatu ahaliko" baitira eta historian lehen aldiz gertatuko da hau, gainera. 2004ean ireki zen azkeneko aldiz lehen mailako domeinuak eskatzeko aukera eta ordutik domeinuen aginteaz arduratzen den erakunde horiek eskuratzeko irizpideei buruz ibili da eztabaidatzen. Hala, 2012ko urtarrilaren 12an irizpide berriekin, eskera aldi berri bati ekingo diote ICANNek eta PuntuEus

Elkarreak berea egingo du .eus euskal eskatuz.

Onartze epeek eta prozesuak orokorrean zenbat iraungo duen ez dute zehaztu baina tasa altuak ezarri dituzte domeinuen salerosketa espekulatiboa ekiditeko. Izenematea edozein hizkuntzatan egin ahaliko da eta, aurreratu dutenez, edozein izen, marka komertziala baldin bada, izango da onargarria. Eremu geografikoentzako domeinu-izenen kasuan irizpide zorrotzagoak ezarri dituzte eta eskaera lurraldeko erakundeekin egin beharko dute, batetik, eta ICANNek daukan zerrenda baten egon beharko da jasota lekuaren izena, bestetik.

Firefoxen bosgarren bertsioa eskura dago jada

J. B. | ARRASATE

Dagoeneko eskuragarri dago nabigatzaile librerik arrakastatsuenaren azken bertsioa, bosgarrena. Probatarako lehen bertsioa Mozilla fundazioak joan den martitzenean ipini zuen eta ordutik egon da eskuragarri.

Laugarren bertsioa ekarri zituen berrikuntza estetikoagoetatik hona, barneko hobekuntzak dira nagusiki Firefox 5.0 nabigatzaileak ekarri dituenak. Gainera, etengabea da Firefoxen berri-tzea ze Mozillak politika moduan ezarri du sei asteen behin eguneratuko duela azeritxoaren nabigatzaile ezaguna.

Euskarrietan dakartza bertsio berriak nobedade nabarmenenak eta aurrerantzean hobekuntzak izango ditu CSS3, Canvas, Javascript, HTML5, XHR, MathML, SMIL eta WebGL euskarrietarako. Honekin batera GNU/Linuxeko mahaigainarekin integrazioa ere hobetu dute bereziki bertsio berri honetan.

1.000 milioi bisitari izan zituen Googlek maiatzean

J.B. | ARRASATE

Bisitari bakarren kopurua da hori eta zifra horietara heltzen den lehen erakundea izan da Google. Datu horiek Google jabetzako gune eta zerbitzuen bisitak batuta lortzen da, hau da Youtube ala Gmailenak ere batuta. Marka historikotzat jotzen da, halere, eta Interneteko konpainia nagusietako batek lortu du. Zerbitzuak zerbitzu, Googlek oraindik ere bilatzaileari esker eskuratzen ditu bisita gehienak. ComScore enpresak egin du kontaketa eta horrekin batera erakunde nagusien zerrenda ere osatu du. Hala, Googlek ostean Microsoft enpresa dago. Bill Gatesen konpainiak, orotara, 905 milioi bisita izan zituen maiatzean eta ostean letorke Yahoo. Microsoften datuak ere aipagarriak dira ze iazko epe bereetik %30eko igoera izan dute bisitetan. Hiru handikien ostean dator Facebook, munduko sare sozial nagusia, zalantza barik; 714 milioi bisita izan zituen.

Datuak herritarren eskura ipini ditu Aldundiak GipuzkoaMatic-en

Eskaintza kulturean oinarriturako API berria ere aurkeztuko dute aurki

J.B. | ARRASATE

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen dituen datu eta zerbitzu digitalen direktorioa da funtsean GipuzkoaMatic (www.gipuzkoa2.net/gipuzkoamatic). Aspalditik eskaintzen ditu Aldundiak zenbait zerbitzu webguneen bitartez - Koldo Mitxelena liburategia edota *GipuzkoaKultura.net* ataria, adibidez - baina erabiltzaileen tresnak eskaini eta datu irekiak erabiltzeko aukera ematea dago erreferentzia berriaren asmo nagusien artean, sortzaile eta editoreengan pentsatuz, bereziki.

"Esparru publikoko gaiak, publikoak izan behar direla" esan zuten martitzeneko aurkezpenean eta, hala, inbertsio publiko berrerrabilgarria dute, mapetan, esate baterako, horiek herritarren eskura ipinita. Aplikazio ala APIen aldeko apustua egiten du gainera administrazioak. Hain zuzen, une honetan 19 aplikazio aurki daitezke webgunean bertan museoei, liburategiekin edota GoogleMapsekin erabiltzeko tresnak eskainiz. Enpresa, garatzaile, elkarte edota administrazio publikoak erakarri gura dituzte eta haiek ere hauek erabiltzen hastea. Era berean, industria kulturalari egin diezaiokeen ekarpen handia ere azpimarratu gura izan zuten aurkezpenan.

GipuzkoaSfera.net, aurki

Unean uneko eta tokian tokiko informazio kultural kontestua-



Webguneko irudi bat. | GOIENA

la eskainiko du GipuzkoaSfera egitasmoak laster batean. Hain zuzen, proiektu berria GipuzkoaMatic-en luzapena izango da baina kultura eta informazioa ardatz hartuta.

Geolokalizazioa edota internet bidez erabiltzailearen kokapen geografikoa hartuta, dagoen lekuko intereseko datuak eman go dizkio erabiltzaileari GipuzkoaSferak. Hurbileko balioa da ustiatuko dena kaletik hasi eta auzora, eta herritik lurralde osora. Kultura eskaintzaren berri jakiteko modu berria izan-

go da eta jasotzeaz gain, edukioak hornitu ahaliko ditu erabiltzaileak aplikazio erraz baten bitartez.

Are gehiago, webgunean jasotzen diren eduki guztiak Creative Commons lizentziarekin egongo dira edozeinek erabiltzeko eta partekatzeko moduan. Horrez gain, webguneak emandako informazio guztia beste webguneetan txertatzeko aukera ere egongo da eta baita ere, hala diseinatuz gero, GPS edota gailu eramangarrietara eroan.

Telebista gailua eta iPhone 5a aurkeztokotan da Apple udazkenean, iCloud abiatzen dutenean

Udazkenean gogor jotzeko asmoarekin ei daude Applekoak eta esamesen artean ia konfirmatutzat ematen da iPhonearen bertsio berria eta telebista gailua ere aurkeztuko dituela, lehena mota horretakoa. Telebista gailu berria iOS sistema eragilearekin ibiliko litzateke eta integrazio osoa izango luke Internetekin eta iCloud sareko biltegiarekin. Hain zuzen, irailean hasiko da iCloud zerbitzua martxan eta orduan aurkeztuko dute, iragarpenen arabera. iPhone berria ere, bosgarrena, martxan da, diseinu aldetik finagoa eta errendimenduz azkarragoa.

Edizio digitalari lehentasuna emango dio The Guardianek, paperekoaren aurretik

The Guardian eta The Observer egunkarien jabeek sareko bertsioei lehentasuna emanaz 2016 urterako 100 milioi liberrako diru sarrerak izateko plana aurkeztu dute. Transformazio prozesuan murgilduko dira datozen urteetan baina kale-ratzerik ez ei da egongo. Berez, edizio digitala sendotu bai, baina paperekoan inbertsioa bere horretan lagatzea da asmoa eta etekinak Internetetik ateratzea, papereko egunkaria kaltetu barik. Esan dutenez, garai berrien aurrean, eredu aldatu ezean bost urte barru dirurik gabe geratzeko arriskua izan dezakete.

Klikmetroak.com ekimena sortu dute sarean, Azpeitian egingo den Kilometroak 2011ren harira

Herritarrek metroak hartuko dituzte, eta enpresa, merkataria eta elkarteek metro horiek diruz babestuko dituzte. Horixe da *klikmetroak.com*-en funtsa. Kilometroetako ibilbidea sarean jarrita dago: 5930 metro ditu. Lagun bakoitzak metro bat egin dezake gehienez eta, beraz, 5930 lagun behar dira ibilbideari itzuli bat emateko. Metro bat egiteko, bi modu daude: formulario bat bete argazki bat, izen-abizenak, e-posta eta Kilometroarekin zerikusia duen mezua; Facebook edo Twitter kontua irekita duten erabiltzaileek, handik klik egin eta hartu ahaliko dute metroa. Herritar bakoitzak metro bana egiteko aukera izango du.

TELE-BEGI



AINHOA VITORIA

Goenkalez blai

Norbaitek telesail bat aipatzeko eskatuko baligu, ziur aski, gehienok *Goenkale* esango genukeela. Uztailaren 5ean bukatuko da hamazazpigarren edizioa eta urrian bueltatuko dira. Baina, *Goenkaleren* jarraitzaileak pozik egon daitezke. Uda honetan, Goenkalez blai telebista saioa ikusi ahal izango dugu eta. Maria Cruickshank aktore oñatiarrak aurkeztuko du saioa eta *Goenkale* telesailaren ibilbide luzea laburbilduko dute bertan.

1994.urtean hasi zen telesaila, beraz, oroitzenak eta anekdotak ugariak dira. Telesailaren edizioak banan-banan aztertuko dituzte eta, bitartean, garaiz garai munduan eta Euskal Herrian gertatzen ari zena ere kontatuko digute.

Interesgarria izango da aspaldian ikusi ez ditugun aktoreak ikustea eta euren iritzia ezagutzea. Baina, interesgarriagoa izango da urtez urte *Goenkaleren* laburpena egiten duten heinean, munduan eta, batez ere, Euskal Herrian garai berean zer gertatzen ari zen ezagutzea. Maria Luisaren heriotza ikusten ari ginen bitartean zer gertatzen ari zen munduan? Zenbat aldatu da *Goenkale* lehen ediziotik? Eta mundua?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 27



San Juan jaien berri

19:45

San Juan jaiak egubakoitzetik asteburura bitartean eman dutena landuko dugu luze eta zabal *Magazinea* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak

13:40 Kantari

14:15 Berbetan

14:45 Berriak

15:15 Klik

15:45 28.Klip

16:15 Gipuzkoa kultura

16:45 Berriak

17:15 Leku txiki bat

17:25 Nere herrie: Arraioz

18:15 Onein

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Harmailatik

21:30 Magazinea

22:30 Harmailatik

23:15 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 28



Sukaldaritza saioa

14:15

Sukalde kontuak gertutik entzuteko eta ikusteko aukera izango duzue *Onein* saioan; errezeta berriak ikasteko aproposa.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Harmailatik

16:00 Hamaika.bit

16:30 Leku txiki bat

16:45 Berriak

17:15 Bi tartean

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bi tartean

21:15 Magazinea

22:15 Harmailatik

23:00 Magazinea

EGUAZTENA, 29



San Pedro jaien gainekoak

19:45

San Pedro jaiak momentura arte emandakoaz gozatu ahal izango duzue eguazteneko *Magazinea* saioan.

13:15 Marrazki bizidunak

13:35 Kantari

14:00 Harmailatik

14:45 Berriak

15:10 Onein

15:45 Hamaika.bit

16:15 Klik

16:45 Berriak

17:15 Bizitegia

17:45 Bi tartean

18:15 Gipuzkoa kultura

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Tertulia

21:45 Filma: Ehun metro

22:40 Magazinea

23:40 Tertulia

EGUENA, 30



Oñatiko Corpus jaiak ikusgai

22:15

Aurtengo Corpusek eman dutena jasoko dugu, besteak beste, *Gipuzkoa kultura* saioan: prozesioa, dantzariak, jendea...

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Hamaika.bit

15:45 Tertulia

16:45 Filma: Ehun metro

17:45 Berriak

18:15 Ipupomamua

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Bi tartean

21:15 Magazinea

22:15 Gipuzkoa kultura

22:45 Magazinea

23:45 Bizitegia

EGUBAKOITZA, 1



Jaien saio berezia

22:15

San Juan jaien saio berezia eskainiko dugu egubakoitzean Goiena telebistan; festekin gozatzeko saio aparta.

13:15 Marrazki bizidunak

13:45 Kantari

14:15 Onein

14:45 Berriak

15:15 Ur eta lur

15:45 Hamaika.bit

16:15 Leku txiki bat

16:45 Berriak

17:15 Berbetan

17:50 Ipupomamua

18:25 Leku txiki bat

18:45 Berriak

19:15 Kantari

19:45 Magazinea

20:45 Gipuzkoa kultura

21:15 Magazinea

22:15 Jaiak: Arrasateko jaiak

22:45 Tertulia

23:45 Magazinea

ARRASATE IRRATIA

San Juanen kronika borobilduko dugu gaurko saioan

Aurreko astean egindako San Juanen kronika borobiltzeko, asteburuan gertatutakoaren berri jasoko dugu, gaur. Alde batetik, Jon Garai kultura teknikariak jaien balorazioa emango digu, eta bestalde, Asier Alkorta kazetariak egunotan kalean gertatutakoaren berri emango digu, 107.7an.

Inguruko bainulekuetako informazioa, 107.7an

Uda giroan irratsaioan, egunero bezala, Joxe Landaren eguraldi iragarpena jasoko dugu. Horrez gain, Musakolako igerilekuko eta inguruko bainulekuetako datuak ere jasoko ditugu; urak ze tenperatura duen, toki horretako tenperatura zein den, jendea badabilen...

Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsakoen bisera, zozketan

Egubakoitzero bezala, oraingoan ere egingo dugu zozketa. Eta, tartean, Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsakoen bisera oparitutako dugu. Zozketan parte hartzeko bi bide dituzue: deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Animate parte hartzera, eta zorte on.

TELE-ALBISTEAK

Arrasateko eta Eskoriatzako jaiak astean 'Magazinea'-n

Jaietan kaleetan izaten den giroa eta kolorea ekarriko ditugu Goiena telebistara, beste behin

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Arrasateko San Juan jaiak egubakoitzean eta asteburuan eman dutena jasoko dugu gaur, astelehena, *Magazinea* saioan, 19:45ean.

San Juan jaiak bukatuta, San Pedro jaiak hartuko dute festaren lekukoa eta Eskoriatzara gerturatu gara, eguazteneko saioan hanga berri emateko.

Beraz, aste honetan, jaien kaleko giroa eta kolorea ez dira faltako gurean. Etxetik goxo-goxo jaiakin disfrutatzeko aukera paregabea izango duzue.

San Juan jaiak

Hara eta hona ibili gara Arrasaten egunotan eta ekitaldi ugari ikusi ahal izango dituzue gure gaurko saioan.

Egubakoitzean, urteroko hitzordu izaten den dragoi janean egon ginen, herritar ugari batu ziren han eta giro aparta jarri zuten bertaratutakoek. Golden Apple Quartet laukoteak Monterronen eman zuen kontzertuan ere izan ginen eta han ere jende asko batu zen musikaz gozatzera.

Zapatuan, haur eta gazttxoen egunean, Eguzki Laruren konpai-



Zapatuan, haur eta gazttxoen egunean hartutako irudi bat. | JULIO CALLEJA

Sanjuanetan jasotakoa gaur eskainiko dugu, 19:45ean

Sanpedroetakoa, berriz, eguazteneko saioan ikusi ahal izango duzue

nian pasatu genuen eguna; herriko haur eta gazttxo guztiak desiatzen zeuden Eguzki Laru ikusteko (Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan martitzeneko ikuskizunean egon baldin bazen ere), eta eskuzabalik hartu zuten. Jaiak disfrutatzeko, gainera, Biteri plazan Haurgunea jarri zuten eta Zaldibarren Gaztegunea. Haur zein guraso, pozik ibili ziren guztiak. Eta zapatuan bertan egon zen eskalada txapelketan ere izan ginen irudiak eta adierazpenak jasotzen.

Domekan, berriz, jaiak amaiera emateko Erdizka Lauetan taldearen emanaldian egon ginen. Herritarrek dantza errazak ikasi eta gorputza mugitzeko aukera ederra izan zuten.

San Pedro jaiak

Eskoriatzan astean ospatuko dituzten San Pedro jaien gainekoak ere jasoko ditugu, nola ez. Eta Eskoriatzako ekitaldiekin gozatzeko aukera izango duzue eguazteneko *Magazinea* saioan eskainiko diogun tartean, 19:45ean.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Elaia Iturbe Lopez
Uztailaren 2an, 4 urte.
Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Zelako handi in zarien... Arrasate eta Oñatiko familia eta lagun partetik, mila kilo zorion eta mila muxu!



ARETXABAETA
Maren Garai Santamaria
Uztailaren 1ean, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Segi horren alai eta polita izaten. Patxo mordoa eta goxo-goxoak etxeko guztien partetik, bereziki Ainara, Uxue eta Egoitzen partetik.



ARRASATE
Eider Sandoval Guerra
Ekainaren 29an, 6 urte.
Zorionak, marimatraka! Gure pirata-erraldoiak urtetxoak betezen ditu. Ederto pasatu eguna, politxoi. Kandelatxo bat gehiago tartan jartzeko eta itzaltzeko! 6 milioi muxu goxo etxekoen eta laguntxo guztien partetik. Patxoak, printzesa!



OÑATI
Haizea Zubia Aranzabal
Ekainaren 29an, urtebete.
Zorionak gure etxeko printzesatuai! Mallukizko patxo asko eta gertau kandelai "puff" itteko! Etxeko danon partetik.




BERGARA
Sara Balentziaga Galfarsoro
Ekainaren 28an, 9 urtetzar.
Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta patxu handi bat etxeko danon partetik. Manex, ama eta aita.



ARRASATE
Paulo Abasolo
Ekainaren 28an, 5 urte.
Zorionak, txapeldun! Familia eta lagun guztien partetik! Ah! Eta aita xori ere zorionak.



ANTZUOLA
Oinatz Penagarikano Zubikarai
Ekainaren 27an, 3 urte.
Zorionak, mutikote! Muxu handi bat familia guztiaren partetik. Bereziki amatxo, aitatxo eta Nahikariren partetik.




ARETXABAETA
Nora Cantera Herrasti
Ekainaren 27an, 3 urte.
Zorionak, potxoli! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARETXABAETA
Ainhitze Kerejeta Abril
Ekainaren 27an, 5 urte.
Zorionak, maitia. Zure aita-amaren eta Arkaitzen partetik.



OÑATI
Nahia Cerqueira Rodriguez
Ekainaren 26an, 4 urte.
Zorionak, printzesa. Egun oso zoriontsua opa dizugu zure laugarren urtebetetzean. Gurasoen eta Eritzen partetik. Asko maite zaitugu.



ESKORITATZA
Iruñe Ortiz Simal
Ekainaren 26an, 5 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunean familia guztiaren partetik, bereziki Aimar, Aintzane, Ibai eta Laura. Bazkari eta merendola goxo-goxoa prestatu. Txoko-marrubizko muxuak!



ARRASATE
Udane Agiriano Castelo
Ekainaren 26an, 4 urte.
Zorionak amatxo eta aitatxoren partetik. Muxu handi bat!



ESKORITATZA
Maite Gomez Nieto
Ekainaren 26an, 39 urte.
Zorionak, *puretilla!* Ederto pasatu eguna! Muxu potolo bat Leire, Ekain, Oihan eta Susanaren partetik!



ANTZUOLA
Patxi Cabo
Ekainaren 26an, urtebetetzea.
Zorionak eta muxu handi bat Inar, Ekhi eta amatxoren partetik. Lortuko dugu!



ESKORITATZA
Oihan Benitez Gomez
Ekainaren 25ean, urtebete.
Zorionak, Oihan! Larunbatean urtebete jada! Muxu handi-handi bat familiaren partetik!




ARRASATE
Eñaut Laskurain
Ekainaren 24an, urtebete.
Zorionak, potxoli! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat familia guztiaren eta bereziki Unai, Haizea eta Alaitzen partetik.




ARRASATE
Gorka Maria
Ekainaren 24an, 18 urte.
Zorionak, *Txohan!* Sanjuan suak zu beti bezain alai eta bizipoza horreaz jarraitzia ein deixela! Patxo handi bat etxekoen partetik.




BERGARA
Xabier Igartza Amasorrain
Ekainaren 22an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat gure etxeko pelotariari.



ARRASATE
Jon Sánchez Oncala
Ekainaren 22an, 5 urte.
Zorionak, Jon! Zure osaba eta izeba guztiak espero dugu egun aparta pasatzea. Asko abestu!



ARRASATE
Eli Alonso Esquina
Ekainaren 21ean, 33 urte.
Zorionak, tia marimatraka! Ederto pasatu eguna, *guapa*. Urtetxoak badoaz aurrera, kapikua! Marrubizko txokomuxu potolo-potoloak, etxekoen eta bereziki loba Beñat eta Marenen partetik. Patxoak, gerrillari-paintbolari!



BERGARA
Yasmina Moreno
Ekainaren 21ean, 21 urte.
Zorionak, tia Yas! Disfrutau topera eta ondo ospatu zure 21 urtiak! Pila bat muxu etxekuen partetik, bereziki Kenar eta Uxue.



ARRASATE
Ane Urrutia
Ekainaren 21ean, urtebete.
Zorionak, *pitus!* Oso-oso ondo pasatu eguna eta muxu handi bat aitatxo eta amatxoren partetik! Pa!



ESKORITATZA
Patricia Raso Herráez
Ekainaren 21ean, 30 urte.
Zorionak, Patri, kuadrila eta familia guztiaren partetik. Bereziki Aner, Oihan, Egoi, Manel eta Amaiurrek. Besarkada handi bat eta laster arte.



ELGETA
Leire Belamendia Elkoro
Ekainaren 17an, 9 urte.
Zorionak eta musu handi bat etxekoen partetik. Mila zorion eta mila amets goxo izan dezazula. Maite zaitut. Alaine.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkartza batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK

BABESLEA

IKUSI
MAKUSI



Maren Gamarra Aizpurua

Itziar 3.700Kilo. Ekainaren 16a. Gurasoak: Ainhoa eta Iagoba. Argazkian, Maren



Ipar Bizkarra Biain

Abadiño 2,680Kilo. Ekainaren 19a. Gurasoak: Ainara eta Egoitz. Argazkian, Ipar amarekin.



Gorka Moreno Dos Santos

Bergara 4,500Kilo. Ekainaren 21a. Gurasoak: Cristina eta Juan. Argazkian, Gorka gurasoekin



Sergio Hernandez Rodriguez

Arrasate 2,940Kilo. Ekainaren 22a. Gurasoak: Lourdes eta Isodoro. Argazkian, Sergio sehaskan lo.

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Zoritar	Bakoitzak bi	Hezetasun
	Nahi ez izate	Hiruko multzotan	Eskuekin
	* Bielorrusiako hirib.		
	Hilda		
Mea mota	Hango		
Seilu	Gogotsu		
			Utiki!
			Soro
Marinelen zerrenda		Erreten, ubide	
Zenbaki bidezko		...-tak, erlojuaren hotsa	
			Sufrea
			Infusio mota
Tokiko egün			
Joan den urtea			
		Eme ugaztun gehien organo	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

N	E	R	E	K	Z	A	I
U	O	K	I	K	O	T	
S	L	V	L	T	G	I	D
V	Z	N		R	O	R	
T	U	L	I	L	I	Z	
O	K	A	R	A	K	P	
K	S	N	I	N	M		
Z	A	H	I	E	N		
E	B	T					

E	S	A	L	V	A	C	O	T	
T	A	V	A	V	A				
A	V	A	V	A	O				
A	V	A	A	L	A	X			
A	V	A	A	L	A	T	X	A	P
A	V	A	A	L	A	M	E	A	V
A	V	A	A	L	A	Z	P	A	E
A	V	A	A	L	A	P	A	E	T
A	V	A	A	L	A	O	P	E	O
A	V	A	A	L	A	R	A	E	D

6	3	2	7	9	2	3	6
1	4	8	5	6	3	7	9
5	7	9	8	4	2	3	6
8	9	3	6	5	7	2	1
8	9	3	9	4	6	5	8
7	2	1	3	9	4	6	5
4	5	6	2	1	8	9	3
9	1	7	4	8	6	5	2
3	8	5	7	2	9	1	4
2	6	4	1	3	5	8	7

SUDOKUA

			3		8		
3			2	9		4	6
	7		8	6	5	2	3
		2					7
	2				6		8
	9		6	5	7		
5			4	2			
	4	8		3			
6	3						

HIZKI SALDA


Topa itzazu bost kapela mota.

K	F	E	D	O	R	A	A	A
A	E	T	O	P	E	O	N	A
P	Z	A	A	A	P	A	A	A
A	A	A	A	M	E	A	A	A
T	X	A	P	E	L	A	A	A
X	A	A	A	L	A	A	A	A
O	A	A	A	A	A	A	A	A
T	A	A	A	A	A	A	A	A
E	S	A	L	A	C	O	T	A

HIEROGLIFIKOA

Printzipio filosofikoa. Lehenbizi...

zi
zi



Hieroglifikoa:
Bizi.

AI, ENE!

Erlojua, beti aurreratuta

Beti berandu heltzen zaren horietakoa zarela? Erloju hau izan daiteke besteak beti zain ez edukitzeko konponbidea.
www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Ez dakit zer den Twitter eta Facebook pelikulagatik ezagutzen dut"

WOODY ALLEN | ZINEGILEA

Allen ez da teknologia berrien laguna: idatzi idazmakinan egiten du eta ez omen du inoiz ere bere webgunea ikusi. Arrarotzat dute askok zuzendaria, eta horrelakoek fama hori areagotu besterik ez dute egiten. Akaso hori da bere lan bikainen sekretua?
www.20minutos.es

EGURALDIA



Max. 37°

Min. 19°

Temperatura oso altuekin jarraituko dugu. Ekaitz arriskua areagotu egingo da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-06-27

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Leire Olaberria Ikaztegiatarak txirrindularitzagatik aldatu zuen atletismoa eta badirudi asmatu zuela: horren adibide, besteak beste, Joko Olinpikoetan lortutako brontzeko domina | TXOMIN MADINA

"Izatekotan, bere lana maite duen pertsonaren eredua naiz"

1. Atletismoan arrakastatsu ibili arren, txirrindularitzara salto egin zenuen. Erronkak gustuko?

Agian ilusio falta. Atletismoan gauzak ez ziren nahi bezala joan, zerbait berria egin gura nuen eta inguruan Belodromoa nuenez... Hasieran beldurra eman zidan eta horri buelta eman behar nio-la erabaki nuen; lehiatzeko asmorik ere ez neukan.

2. Zein zapora du brontzeko domina olinpiko batek?

Oso gozoa. Txirrindularitzara bide luzea egin ostean heldu nintzen; Joko Olinpikoak alde batera utzitako ametsa ziren. Eta momentu garrantz askoren ostean etortzako lorpena izan zen.

3. Londresen, urrearen bila?


Londresera, txirrindulari hobe, osoagoa izanda helduko naiz. Proba aldatu dute, niretzat egokia da eta uste dut dominen borrokan egongo naizela, baina ezin duzu ezer ziurtzat eman.

4. Egunean zenbat ordu ematen dituzu bizikleta gainean?

Egun errepidean ari naiz lanean, eta hiruzpalau orduko entrenamenduak dira. Pistan, lehiaketa garrantzitsua badut, gehiago.

5. Hainbeste diziplinarekin, zein izan da azken zorakeria?

Ez dakit, ez naiz asko ateratzen bidetik. Atletismoan ikasitakoak dira diziplina eta zorroztasuna, goi mailan aritzeko, ezinbestekoak.



JON POZO

LEHENDAKARIA BANINTZ

"Politika, politikoendako utziko nuke"

"Ez dut batere bokaziorik politikarako; nire bokazioa kirola da. Uste dut gaur egun errazegia dela politikoak kritikatzeko eta ez naiz gai ikusten inork egiten duena kritikatzeko. Politikoentzat uzten dut politika, ni kirolean geratzen naiz. Txirrindularitzaren alde inon lan egin bada, Euskal Herrian izan da hori."

6. Pista bati bueltaka aritzea, ez al da monotonoa?

Pistan ez duzu pentsatzen bueltaka zabilzanik. Lan espezifiko da eta sei proba prestatu behar dituzunean, ez dago aspertzetik: egunero dago lan ezberdina.

7. Txirrindularitzaren fama txarra: merezikoa ala injustua?

Oso konplexua da. Gogorregia egiten zait ikustea nola tratatzen duten kirol hau jendeak eta komunikabideek. Nire kirola maite dut eta asko sufritzen dut horrelako gaiekin; azpimarratzeko balore asko ditu txirrindularitzak, sakrifizioa esaterako.

8. Sentitu al duzu inoiz zeure burua eredu?

Ez; eredu izatekotan, bere lana benetan maite duen pertsonaren eredua naiz. Hori da bizitzako arrakastarik handiena eta gatzetxoekin berba egiten, hori transmitzea gustatzen zait.

9. Nola imajinatzen duzu txirrindularitzari agur esateko eguna?

Ez diot agurrari datarik jarri. Berandu iritsi naiz, eta oraindik momenturik onenean ikusten naiz. Ilusioa mantendu bitartean, hemen dago nire lekua; momentua bizitzea gustatzen zait.

10. Turismo ikasketak dituzu. Saldu iezaguzu ikaztegieta.

Herri txikia da eta gauza asko falta arren, jende xumea dago, jatorra, ezer behar baduzu laguntzeko prest dagoena.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Txikion faboretan

Erraldioen sasoi honetan gauza txikien aldeko ikurra altxatu nahi dut nik.

Gaur egungo jendea garai batean jaiotakoa baino lepaluzeagoa eta hankaluzeagoa da. Harroko-harroko orotarazten digute hori aldian aldiko inkesta orojakileek, esanez, jendea, batez beste, orain 80 edota 40 urte jaiotakoa baino dezentenez luzeagoa dela.

Eta egoera horrek orotan dihardu bere ondorioak ezartzen. Esaterako, tabernetako komunetan horma kontra dauden gizonetako txiztontzi asko eta asko oso altu jarrita daude; lurretik altu-altu, bai.

Txiztontzien altura hori ez da arazo izango gerriluzentzat, baina umetan jogurtik jan ez guelako edota, besterik gabe, Lazkao Txikiri gertatua jazo zaigulako guri ere, hau da, jaiotzen bertan eta hazi inon ez... txiztontzi altu horietan lasai-lasai egin beharrekoa egiteko ez dugu tallarik ematen! Horixe da egia: ez gara iristen! Eta hanka-punttatan jardun beharra ere ez da gauzak egiteko modua... hanka-punttatan iritsiz gero, sikiera!

Izterluzeen artean hainbesterako ez garenak ere bagarela ez lukete ahaztu behar etxegileek.



Igogailuaren mantentze-lanak oso garesti ordaintzeaz gogaituta?

AURREKONTUA
2 EGUNETAN

Informa zaitez:
Tel.: 943 04 40 01
debagoiena@ascensoreshemen.com
www.ascensoreshemen.com

Deitu!



943 04 40 01

Zure aurrekontua
115 €-tik
aurrera.

